



Kontu kontari

Arg.: M. Albisu

AUTO ASEGURUA



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK
Euskadiko Kutxa Taldekoa



GIPUZKOAKO NEKAZARITZA BIOLOGIKOAREN III. AZOKA



ZERAIN
DEZAGUN
FUNDAZIOA

Irailak 21 Zeraingo Herriko Plazan
(11-14:30 eta 16:30-19:00)

- Baserritar biologikoen produktuen erakusketa eta salmenta. Barazkiak, fruituak, gazta, ogia, etab.
- Zeraingo baserriko produktuak.
- Bisitako aukerak: Herri Museoa, Larraondo zerrategia, Kartzela, BTT zirkuitua, herriko produktuen denda, etab.
- Bisita berriak: diaporama, herriaren historiaren ikustentzutekoa. Goierriko artisautzaren erakusketa eta salmenta.

Informazio eta harrera bulegoa:

☎ **80 15 05**

Argazkien irudiak ez dira erakutsita.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación



GOIERRITARRA

ren alde zozketa

ZURE AMETSETAKO

BIDAIA!



200 pezetaren truke



SARIA: 300.000 pezetako bidaia
(1998ko irailaren 30erarte egiteko)

Errifak GOIERRITARRAn bertan ere salgai

Errifak salduaz GOIERRITARRA laguntzeko prest
bazaude, deitu 88 96 12 telefonora

Zozketa notario aurrean egingo da, 1997ko abenduaren 19an.

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nagore Goiburu, Josune Amondarain, Urko Irastorza, Koldo Urrestarazu, Josune Aldabe, Pako Zubeldia, Edurne Albizu, Iñaki Murua, Amagoia Muruamendiarrak eta Jexux Aizpurua.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 6.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Nekazaritza ekologikoaren
azoka Zerainen**

Igandean, irailak 21, izango da Zerainen, Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoaren III. Azoka. Goizez eta arratsalde: goizean 11:00etatik 14:00etara eta arratsalde 16:30etatik 19:00etara.

Biolur (Nekazaritza Ekologikoaren Aldeko Elkartea) da antolatzailea, Zeraingo Udalaren eta Fundazioaren laguntzaz. Biolur nekazaritza iraunkor, ingurugiro orekatu eta janari osasungarrien alde dauden guztien elkartea da; baserriar, teknikari eta kontsumitzaileak, denak elkartuta. Guztien helburua, produktu ekologikoak kontsumituz, baserria, ingurugiroa eta osasuna zaintzea da.

Iaz kalitatearen abala sortu zuen Eusko Jaurlaritzak; nekazaritza biologikoa egiten duela garantiatzeko duen zigilua da be-

rau, produktuak saldu ahal izateko behar-beharrezkoa. Abala lortzeko baldintza hauek bete behar dira, beti ere llaborantza ekologikoa izan dadin: produktu kimikorik ez, ongariak organikoak, mineral naturalak eta berdeak bakarrik; eta txandaketa sistema erabili behar da. Abal honen izendapenarekin, nekazaritza ekologikoaren produktoreak bikoiztu egin dira. Interesa geroz eta handiagoa da, horren lekuko dira, aurtan sekula baino azoka ekologiko gehiago egin izana.

Produktu ekologikoak kontsumitzen dituztenen elkartea ere badago, Otarra. Produktuak elaboratu egiten dituzte eta hauek ere saltzen izango dira Zerainen. Biolurrek ere beste postu bat izango du, nekazaritza mota honi buruzko informazioa zabaltzeko.

BOTA BERTSOA



Ekaitz Goikoetxea

Bakea

Doinua: Zuek horrela ikusi eta

Uso zuria odoldua da Euskal Herrian kalteko, irribarrea zapuztuz gure ezpain tarte bakoitzeko, errudun bila muturtu gabe bateko eta besteko, elkarriketa tarteko, eztabaidatzea peto, ez ote dugu hobeto? (bis) bakea dugu gure helburu ta baketa bitarteko, amestutako elkarbizitza behin betirako lortzeko. (bis)

Modu guztiko indarkeriak bazter ditzagun lehenbailehen, ta has gaitezen tolerantzi ta errespetua jorratzen, zahar eta gazte, andra ta gizon, konprometituz hain zuzen, hitzez hitz hurrenik hurren, bakean bizitzearen, denok batera gaitezen, (bis) nahiz ta iritzi ta pentsamendu ezberdinak izan hemen, zubiak egin behar ditugu ertzak elkartu daitezen. (bis)

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



Itsasondo eta autodeterminazioa

Itsasondo, gertaera bategatik, alde guztietako irratik eta telebistetan aipatua izan da. Ni Itsasondon jaioa naiz, mutil koskorra nintzela nere guraso eta famili guztia Donostiara etorri giñan bizitzera, baino nere sustraiak itsasondotarrak dira. Itsasondoko festatan, 1930-36 aldean, Idiazabalgo txistulariak (Rikardo, Nasario ta Vitoriano) etortzen ziran eta haien soñutik "al suelto" bakarrik dantza egiten gendun, "al agarrao" ez zen egiten. Donostiako ezker-españolista izparringiak, 'La Voz de Guipuzcoa'k idatzi zuen itsasondotarrak "retrogradoak" giñela, baño Itsasondoko Udalak (hiru nazionalista, bi karlista ta UGTko bat), Republika aldarrikatuta (1931), batasunez erabaki zuen: telegramak bidaltzea Gipuzkoako gobernadoreari eta Madrilera lehenbiziko Gobernu Errepublikarrari (1931), eskatuz autodeterminazioa Euskal Herriarentzat. Lehena izan zen udal akordio hori hartzen. Politikan itsasondotarrak danen aurretik. "Retrogradoak" 'La Voz de Guipuzcoa' eta alkate errepublikanoa-sozialistak (Bilbao, Donostia...) izan ziren, bere ixiltasunagatik "autodeterminazio" giroan. Orain soñu-dantzak alde guztietan aldatu dira, baño sozialistak 1931n estankatuta gelditu dira, "retrogrado" dare

oraindik "autodeterminazio" giroan.

Andoni Sarasola (Donostia)

San Andresko Hegazti Txokoa itxita! Zergatik?

San Andresko 'Hegazti Txokoa' dela eta, egoera kezkagarri bat bizi izan dugu azken urteotan eta gaur egun egoera hori oso larritzat jo litekeela uste dugu. Labur eta ahalik zehatzen agertuko dizkizuegu hemengo gora-beherak:

Historia apur bat: Duela zazpi urte edo, bere zaletasunaren eraginez, hasi zen Keko hegaztiak biltzen poliki-poliki. Inguruko mendietan azaltzen ziren hegazti eta mamutz txiki zaurituak, geroz eta ugariagoak ziren hemen, jendeak honuntz ekartzen zituelako eta bertan zaintzen zirelako.

Hegazti Txokoa neurritz handitzen joan zen, bisitariak ugaltzen, lana gehitzen, gastuak areagotzen eta egoerari irtenbide normalizatu bat eman beharra zegoen. Horrela Diputazioarekin hitzarmen bat sinatu zen 1994ko urtarilean:

- Hegazti Txokoa irekitzeko baimena ematen zen (kondizio batzuk betez: animalia guztiak kontrolatuta eta Diputazioko Tekniko eta Goarden gidaritzapean).

- Babestutako animalien

janaria ordainduko zen.

Gaur egun, hiru urte t'erdia pasa ondoren, itxitura berri batzuek egiteko 200.000 pezeta besterik ez dugu jaso. Janaririk ez du inoiz ordaindu.

Gaur egungo egoera: Diputazioak hitzartutakorik ez du bete eta ugaritan erreklamatu bazaio ere, alferrik izan da.

Azkenaldi honetan janariaraz aparte, ezinbestekoak diren instalazioen berrikuntza eta egokitzea ordaintzea eskatu zaio Diputazioari eta azken egunotan jaso dugun erantzuna: ezezko borobila izan da.

Gure dedikazioz aparte, soldataren zati handi bat ere bertan uzten ari gara eta hau benetan ezinezkoa da.

Diputazioaren ardura den Ingurugiroaren Babesa (animaliena) da guk egiten dugun lana eta beraiek markatutako norma guztiak betetzen ditugu. Beraien ardura bada eta lan hori guk egiten badugu, nola funtziona dezakegu diru laguntzarik gabe?

Gure erabakia irailaren hasieratik publikoari ixtea da eta animaliak dagokien tokira eramatea, egoera honetan ezin dugulako jarraitu. Beste gabe, egoera uler-tuko duzelakoan, agur t'erdi.

Keko Mairoz (Segura)

Gero arte


Baduk hilabete t'erdi joan haizela, Aitor. Eztiagu berriro elkar ikusiko zuen etxera jetsitakoan, ezta kuadrilakoek plan bat eginda-koan ere. Oso zaila duk hori horrela izango dela amestitzea; baina, hala ere, orain hobeto egongo haizela pentsatzen diat; edonon hagoela ere.

Hemeretzi urte egin dizkiagu elkarrekin, betidanik izan haut kuadrilako, bizilagun eta ikaskide; ezingo nik ek egutegi batean elkar ezagutu genian eguna markatu. Ezta banandu gaituena ere, ze, gertatuak gertatu, hirekin bizitakoa geratzen zaiguk, inoiz baino biziago.

Hiru urte hauek ez dituk ez alperrik joan. Hik bakarrik dakik nolako kalbarioa eduki duan denbora hontan, baina guk ere sufritu diagu: Guzti honek pena merezi ote zian egiten nitxoan galde neure buruari. Hik baietz erantzun didak orain, ez dela etsi behar erakutsi didak, amore emandakoan amaitzen baituk dena.

Baduk hilabete t'erdi joan haizela, modu latzenean joan ere, eta ez zeukeagu ezer egiterik. Baina azkena ikusi hindudanean sehaskako umea ematen huen hire loan. Hurrengo egunean nahiago izan nian ez begiratu; horrela, niretzako, lo gozo hortan segitzen duk. Gero arte.

Bianditz Iraola (Zaldibia)



Santa Ana jai
zoriontsuak denoi

ondoea

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxe: 88 0872

ITSASONDO

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

TXANDAKA

Birusa

Azken bolada honetan, joandako toki guztietan aurkitzen dudan arerio ikustezina da. Ez dut ikusten baina nabaritzen dut. Ordenagailua pizten dudan bakoitzean berdin. Udaberrian instalatu nuen antibirusak ez dit balio udarako eta neguan zer beharko dudan ez dakit. Ez dago honentzako preserbatiborik!. Ditzosozko bitxo hori akabatzen dudanean (bitartean gordetako lan denak jango dizkit baino...), beste bat sortuko da ala sortuko dute? Nere lagun batek dionez, negozio borobila bihurtu omen da (borobilen negozioa?) antibirusak egitea, aldiro berritzen baitituzte eta, ederki ordainduta erosten ditugu gainera!. Arraio, makinei ere botika eman behar!.

Pertsonekin gertatzen den gauza bera da, orain meningitisa dela eta txertoa. Baina meningitis mota bakarretik babesten zaitu, beste bat parean tokatzen bazaizu akabo!

Eta ez da hor bukatzen: sagarrak zorria, pinuak moztorra, tomateak gorrina, ardiek txi-xarak, dendariak zorrak, langileek langabezia, pobreek mixeria, aberatsek zergak, politikoek aitzakiak... eta GOIERRITARRA errifak ateratzen!

Iñaki Murua



Zer iruditzen zaizu tabernak ixteko ordutegi berria?



Igor Bueno
22 urte, ikaslea
legorretar Beasaineratua

Ondo ez. Ateratzeko gogoia denok izaten dugu eta lagunekin gustora zaudenean, orduerditxo horiek asko eskertzen dira.

Aitor Imaz

27 urte, tabernaria
zaldibitarra

Asteburuan egiten dugu lan gehien eta orduerdi hori asko da guretzat. Tabernariorik ez digute ezertxo ere komentatu iritzia edo soluziobideak emateko. Dakiguna komunikabideetatik dakigu.



Jexux Gorrotxategi
34 urte, gidaria
itsasoa

Ordutegia murriztearen helburua istripuak ebitatzea baldin bada, tabernak lehenago ixtea ez da soluzioa, gazteek beste alternatiba batzuk bilatuko dituztelako. Dena ordu berean itxiko balute, agian.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN



MUJIKALIBURUDENDA



BEASAIN ☎ 88 74 00

ZINEA

GOIENIZ:

'Terciopelo azul'. Irailak 25, 21:00etan, Usurbe Antzokian.

BEASAIN:

'Anaconda'. Ostirala 19: 22:15; larunbata 20: 19:30 - 22:15; igandea 21: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 22: 19:30.

'Bean'. Ostirala 126: 22:15; larunbata 27: 19:30 - 22:15; igandea 28: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 29: 19:30.

ORDIZIA:

'Men in black, hombres de negro'. Ostirala 19: 22:15; larunbata 20: 19:30 - 22:15; igandea 21: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 22: 19:30.

'El mundo perdido'. Ostirala 126: 22:15; larunbata 27: 19:30 - 22:15; igandea 28: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 29: 19:30.



'Terciopelo azul'

David Lynch (EEBB, 1986)

Lorategi batean aurkitutako giza-belarriak, 'Jeffrey' ren iheslari sena piztuko du, 'Dorothy Vallens' abeslari misteriotsuarengana iristeko, gaugiroko taberna baten eta apartamentu ilun baten artean bizi dena. Harrigarriena, ordea, misterioan mugilduta dagoela usetekabeen konturatzea izango da, bizitzak alderdi ilunak dituela eta bera ere "misterio" bat dela.

80ko hamarkadako filme berritzaile eta garrantzitsuen askoren ustez David Lynchena, non hiru jeneroren moldeak maisuki nahasten diren: nerabeei buruzko istorio estatubatuar "pijoak", zine beltza, eta fantastiko edo beldurrezkoa. 'Blue Velvet' en arrotzak, izugarria, ankerra... bertan dago, gure inguruan dabil. Hau bai mundu arraroa!

BERTSOLARIAK

BEASAIN:

Irailak 26, Ordiziako antzerki taldeak 'Errege gaua' lana taularatuko du, Usurbe Antzokian, 20:00etan.

IKUSENTZUNEZKOAK

BEASAIN:

Irailak 19, Aire librean 'Euskal pilota-jokoa' eta 'Ojarte' ikusentzuneakoak, Kepa Gonzalezen eskutik, Zaldizurreta plazan, 22:30etan.

ERAKUSKETAK

ATAUN:

Irailaren 19an eta 20an, Fossil erakusketa, Udaletxeko Ganbaran. Ordutegiak: 19an: 20:00etatik 21:00etara. 20an: 11:30etatik 13:30etara eta 17:00etatik 19:00etara.

BEASAIN:

Irailaren 21era, Rosa Mari Gullonen erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa-Aretoan.

Irailaren 20tik aurrera, Mare Arrizurieta ren eskulturen erakusketa, Aterpe tabernan.

Irailaren 27tik aurrera, Joakin Estonba eta Jose Mendez en pintura eta eskal makilen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

ORDIZIA:

Irailaren 24ra, Jose Luis Zumetaren erakusketa, Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 21, Besaidera.

Irailak 28, Orbaitzetara.


Idiazabalgo mendizaleak:

Irailak 28, Urkaregi - Kanpantzar.

Ordiziako mendizaleak:

Irailak 21, Besaidera.

Irailak 28, Erniora.



TXINDOKI TABERNA



✗ Pintxo bereziak

✗ Ogitartekoak

✗ Plater konbinatuak



✗ Eguneroko menua

✗ Karta

✗ Ospakizunetarako menu bereziak



☎ 88 40 49

Etxezarreta, 3

ORDIZIA

Gailurrentz-ekin mendi irteera

Zaldibiako Gailurrerantz Kirol elkarteak mendi irteera antolatu du irailaren 21erako: Baraibar-Oidui-Zaldibia. Goizeko 7.00-etan herriko plazatik abiatuko da autobusa Baraibarrera. Oiduin baba-rrun jana egingo dute eta handik Zaldibiara itzuliko dira. Txartelak ohiko tabernetan daude salgai, 1.500 pezetan. Langabe-tuek 1.000 pezeta.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

- ☐ Lazkaon pisua alokatzen da. 18 04 26.
- ☐ Deustun pisua osatzeko ikasle bat behar dugu. 882887 (Laida) edo 881852 (Usua).
- ☐ 2 edo 3 neska behar dira Oñatin pisua osatzeko. 889067 (Leire)

Salerosketak:

- ☐ Ordizian Arantxa taberna jabez aldatzen da. Bezero ugari, erdialdean kokatua. Deitu 88 72 46 telefonora.
- ☐ Karrerako txirrindua salgai. 88 51 39.
- ☐ Husky txakurkumeak salgai. 65 16 89.

Lana:

- ☐ Esku soinuak konpon-tzen dira. Marka eta modelo guztiak. 47 00 01. Arratsal-deko 5.00etatik 7.00etara, ostegunetan ezik.

- ☐ Goiz eta eguerdi partean lana egingo nuke etxeko lanetan edo kafetegietan. 180378.

Bestelakoak:

- ☐ Dekorazioa: altzari mar-gotuak, ormetako dekora-zioa, paperezko panpinak, muralak, koadroak, logoti-poak... egiten dira. Jaione. 883219.
- ☐ Beasainen 1961-1963 bitartean atera zen 'Loinaz' aldizkariaren ale hauek ero-siko nituzke: 2, 4, 5, 12, 13, 14 eta 15. Asteburuko baz-kalondoetan 88 80 68 telefo-nora hots egin.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia).
Irailak 20-21: Arriola (Plaza Nagusi - Ordizia).
27-28: Urbizu (Nagusia, 8 - Beasain).



GOIAGI OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g **Barandiaran Taldea,2**
ORDIZIA ☎ 160501 **ZALDIBIA ☎ 880737**

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
 ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN

TOYOTA GOIERRI AUTOAK



TOYOTA CARINA E

2.150.000 pezetatik

3 URTE
 GARANTIA

24 ORDU
 ASISTENTZIA

ORDIZIA

☎ 88 20 05 - 88 10 73



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua,20
☎ 88 87 02
BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

KALITEA eta PROFESIONALITASUNA

97-98 IKASTURTEA

✓ ESKOLA LAGUNTZA

- ☐ OHO, DBH, LOGSE, UBI, LH, IEE.
- ☐ Banakako atentzioa
- ☐ Talde txikiak

✓ UNIBERTSITATE MAILA

- ☐ Kalkulua eta kontabilitatea
- ☐ Estatistika
- ☐ Matematika
- ☐ Fisika eta Kimika

HASERA: URRIAK 1

INFORMAZIOA eta MATRIKULA:

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5 BEASAIN



*Jerux Aizpurua
Barandiaran (Ataun)*

*Iñaki Urdangarin
(Zumarraga, 1968)*



*Juan Mari
Urdangarin
(Zumarraga, 1931)*



*Laureano
Urdangarin
(Zumarraga, 1898)*



*Diego Urdangarin
(Zumarraga, 1873)*



*Juan Migel
Urdangarin
(Hiriberri-Nafarroa)*



*Jose Joakin
Urdangarin
(Ataun, 1829)*



*Sinforino
Urdangarin
(Ataun, 1805)*



*Juan Urdangarin
(Ataun)*



*Juan Antonio
Urdangarin (Ataun)*

Zumarragako Iñaki Urdangarin Berriotxo eta Kristina infantaren artekoa jakin zenetik hasi ziren kazetariak senargaiaren odol urdinaren bila. Bide horretan, ordea, odolgorridunak soilik topatu bide dituzte. Hala ere, ataundarro dagokigunez, egia da, noski, Urdangarin deitura Ataungoa dena. Baina, lehenik, argi dezagun ataundarron jatorria eta duintasuna. Jakina denez, ataundarrek beti izan dute ospe berezi bat: batez ere, erlijiosoei buruzkoetan. Eta ikasketadunen artean, duela 30en bat urte egindako neurketan baten ondorioz, Ataun omen zen Espainiako estatu osoan bataz beste jende ikasi gehien zuena... Horrela izanik, tituludunaz gain titulurik gabekoak egin eta jaso dute ataundarren nortasuna gaur egungo mailara. Eta horien artean dira artzainak, ikazkinak, arotzak, harginak, baserritarrak, errotrariak, jostunak, dendariak, ermentariak, mandazainak, basagizonak, etxeoandreak, etxegileak, antikuariok, morroiak, neskameak, eta, nola ez, kamenero eta mikelleteak.

HONEKIN BATERA, azpimarra dezagun, sinestu edo ez, geure artean gizaldi eta gizaldietan ibili eta dabilzan jentil, basajaun, sorgin eta lamiak. Arlo honetan lekuizenak eten gabe ari zaizkigu hizketan: Lamiñotsin, Jentilbaratza, Sugarzulo, Marumendi... Eta baita San Martin Txiki, Kismi eta Putterriko Damea ere. Ospeak ospe, Urdangarin deitura inguruotan sortu, hazi eta hezi izan da, eta euskaraz, kuantu. Ba omen zen behin Urdangarin izeneko baserria... Hauxe da ataundarrongure historiaren eta nortasunaren berri eskein dezakegun apurra. Ez dakigu, ordea, besteek gutaz diotena. Norbait auzartzen bada...

Urdangarindarrak eta Ataun

HALA ERE, erregetzaren inguruko kontuei helduz, urdangarindarren aztarnei zehatzago jarraitu nahi diegu; Ataungo herriaren izena eta izana dagokion lekuan gel dadin eta, orain bezalaxe, urdangarindarrek Atauni lotuta eta txertaturik jarrai dezaten.

BA OMEN ZEN behin ataundar bat Erregeren alabarekin ezkondu nahi izan zuena. Horretarako, ordea, inor ez bezalakoa zela azaldu behar zuen bere burua. Egun batez... Badi-rudi piskanaka komunikabideen sua itzaltzen ari dela; beraz, geure lanari lasaia gozatzeko ekin diezaiogun lehenbailehen eta jarrai dezagun hariari tiraska. Zalantzak argitzeko eta bakoitzari berea opatzeko, Zumarragako urdangarindarren Ataunetik loturaren bila gabiltzanez, has gaitezen zertxobait zehazten. Horretarako, bere aita, Juan Mari, hartuko dugu abiapuntutzat. Hau Zumarragan jaioakoa da 1931. urtean, eta honen aita, hau da, Iñakiren aitajauna, Laureano Urdangarin ere bertan jaio zen 1898an; merkatari edo dendari omen zen. Aitona Laureanoren aita Diego Urdangarin zen, latoneroa eta Zumarragan jaio 1873an.

ETA HEMENTXE DATOR lehen-dabiziko koska; Iñakiren beraitonaren aita, hau da, herenaitona Juan Migel Urdangarin Larrantz Nafarroako Hiriberri, Villanuevan hain zuzen, jaioakoa zen eta bizimoduz galdarigile. Beraz, hau izan Nafarroatik Zumarraga aldera joan zena. Delako Juan Migel Azkoitiako Maria Martina Arrizabalagarekin ezkondu zegoen.

HONA BIGARREN KOSKA:

Juan Migelen aita Jose Joakin Urdangarin zen. Eta nongoa izango eta Ataungoa. Dirudienez, Nafar aldera joanda zegoen, ze Maria Antonia de Serrano madoztarrarekin ezkondu agertzen baita. Arrazoi garbirik ez badago ere, Ataundik Madotza ia-ia basotik irten gabe joan daitekeela esan daiteke; San Migel aldetik aurrera. Beraz, basoak egin zuen Iñaki Urdangarin lauraitona ataundarren lotura.

JUAN MIGEL Urdangarin 1829ko abuztuaren 12an jaio zen, lehen aipatu bezala, Ataunen. Eman ditzagun berari buruzko hainbat xehetasun: aita Sinforino eta ama Maria Katalina Goikoetxea zituen. Aitonamonak, berriz, Juan Urdangarin eta Ignazia Antonia Goikoetxea aitaren aldetik eta Ramon Goikoetxea eta Rita Zununegi amarenetik. Sinforino delakoa 1805eko abuztuaren 2an jaio zen. Aita Juan Urdangarin eta aitona, berriz, Juan Antonio Urdangarin. Ondorioz, konturatu ere egin gabe, XVIII. mendean aurrera sartu gara Iñaki Urdangarin arbasoen bila.

USTE DUGU honainoko ibilbide luze hau aski izango dela urdangarindarren zuhaitz genealogikoa zertxobait, bederen, osatzeko eta Urdangarin deituraz gain, Zumarragako urdangarindarren jatorrizko herria Ataun dela egiaztatzeko. Urdangarin etxeari dagokionez, Ataungo zaharrenetako zat jotzen da eta XV. mendea baino lehenagoko datuak ere badira. Hurrengo baterako utziko dugu Urdangarin base-rrian ingurutik egin daitekeen ibilbide zoragarria. Bitartean, ondo izan!

BEHIN BATERA ikazkin bat Aralarko basora joan omen zen ikatza egitera...

ERREZETA



Mari Jose Arregi
Olalgi sagardotegia
Altzaga

GAZTA ETA KREMA TARTA

2 zentimetroko alturako bizkotxo egin eta tartera batean jarri.

750 zentilitro pastel-krema egin. Beroa dagoenean bi gazta fresko (Philadelphia) terrina ondo nahastu. Jarraian bizkotxoaren gainean krema jarri eta labean sartu 2 orduz, oso su txikian. Hozten utzi eta kamaran eduki.

AHOLKUA

Zahartzaroa

hortan zer ikusi handia dutelarik.

Beraz, nolabait zentzu handi batean geure zahartzaroa nolakoa eta noren ondoan izango den geuk presatzen joaten garela esan dezakegu.

Badira aspaldiko garaie-tan grekarrek emandako hamar kontseilu 100 urte izatera iritsi ahal izateko eta hementxe adierazi nahiko nizkizueke:

- Eraman ezazue bizi lasai eta antolatua.
- Parre egin ezazue (Zenbait eta gehiago hobe).
- Lan egin itzazu zortzi ordu eta beste zortzi lo.
- Ez zaitezte urduri jarri.
- Jan ezazue dagokiona, neurrian eta lasai.

- Edan ezazue ura beste ezer baino gehiago.
- Pasea itzazue egunero gutxienez bi ordu.
- Ez ezazue behar baino gehiago hitz egin.
- Gutxi eztabaidatu, batez ere arrazoia duzuela ziur zaudetenean.
- Dirua morroi on baina nagusi txar duzue, beraz, ez ezazue gehiegi estima.

Dena den, ez ahaztu zahartzaroaren garaia gogorra dela eta adaptapen berriak eskatuko dituen aldaketa eta galerak izango direla. Hauei erantzuna eman eta aurre egiteko prest egoteak zahartzaro alaitsu eta eramankorrago bat izaten lagunduko digu.



Amagoia
Muruamendiaraz
Gerontologa

Gure zahartzarora denborak guregan egindako aldaketa fisiko, psikiko eta sozialek osatzen dute.

Aldaketa hauetariko batzuen zergatian parte hartzerik ez dugu izango, genetikoki eta biologikoki mugatuak egongo baitira. Baina beste aldaketa batzuek gure bizi motaren ondorioa izango dira: elikadurak, ariketa fisikoak, erretzeak, eguneroko presak, lagunarteak...



- Mediku akupuntorea
- Pisua kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11
ORDIZIA

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elsegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



Umeen arropa denda

UDAZKEN NEGUOKO ARROPA
BERRIAK PREST DITUGU MO-
DA-MODAN JAZTEKO

☎ 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA



3 artzain zaldibitar omenduak

Legazpiko Artzain Egunean Zaldibiko 3 artzain omendu zituzten: Ignazio Sukia Arruabarrena (argazkian ezkerrekoa) Okabio baserrian bizi da, 83 urte ditu. Orain dela 8 urte utzi zion artzantzari. 170-200 buruko artaldea edukitzen zuen. Jose Urretabizkaia, Benta-Berri baserrian bizi dena, 85 urte ditu. Oraindik ere 58 buru dituzte etxean eta berak jezten ditu. Migel Munduate Jauregi, Bikario-etxean bizi da, 86 urte ditu. 7 urterekin hasi zen artzain aita eta aitonarekin. Momentuan 40 buru dituzte familian, eta semea aritzen da zain-tzen.

Irizar Brasilera

Ormaiztegiko Irizar koope-ratibak eta Brasilgo Caio enpresak biko konpainia osatu dute, Brasilen ibilbide luzeko autobusak egiteko planta martxan jartzeko. 200 bat brasildarrek eta Euskal Herriko 20ren bat langilek egingo dute lan

Sao Pauloko lantegi berrian. Horretarako, 3.000 milioi pezetako inbertsioa egingo dute bi lantokiek erdibana. Brasilekoarekin batera, Marokon eta Txinan ere autobus lantegiak ditu Irizarrek. Urtean 18.000 autobus saltzen dira Brasilen, horietatik 5.000 baino

Goierriko baliabide turistikoak eta ibilbide gidatuen prestaketa

Goierriin dauden eta askotan goierritarrek ezagutzen ez dituzten baliabide turistikoak ezagutza hedatu eta ibilbideen prestaketaren bidez baliabide horiek aintzat hartzeko teknikak erakusteko ikastaroa antolatu du Goieki, Goierriko Garapen agentziak.

Ikastaro hau kolektibo zabal bati zuzendua dago: eskualdeko alojamendu eta establezimendu turistikoetako arduradunak, turismo era berrietan interesaturik dauden gazteak, beraien herrietan dauden baliabide turistikoak inguruan ibilbideen prestaketan interesaturik dauden udaletako teknikari eta zinegotziak...

30 orduko ikastaroa da,

15 orduko bi ataletan banatua: lehenengo atalean Goierriko baliabide turistikoak deskribapen bat egingo da; bigarrenean, baliabide turistikoetatik abiatuta, ibilbideak prestatzeko teknika desberdinak argituko dira.

Ikastaroa ostiraletan (17:00etatik 20:00etara) eta larunbatetan (9:00etatik 13:00-14:00etara) emango da Beasaingo Ezkiaga Auzo Etxean, lau asteburutan, irailaren 26an hasita. Matrikulazioaren prezioa: 10.000 pezeta. Goiekin eman behar da izena. Ikastaro hauek Fondo Social Europeok kofinantzatzen ditu.

gehiago ibilbide luzekoak. Century luxozko motakoak izango dira Brasilen egingo dituzten autobusak, eta asmoak betetzen badira, 2000. urtean 500 autobus egingo dituzte urtean.

Ana Rosa Zubeldia

Abuztuaren 11n Hego Afrikan auto istripua izan zuen ordiziarra hil egin da. Hondarribiako aireportura zekarren hegazkinak lur hartu eta berehala, hain zuzen ere. Ordiziako Oianguren Institutuko euskara eta historia irakaslea zen Ana Rosa.

ANDRA MARI TABERNA

- Eguneroko menua: 850 pta.
- Taldeentzako menua: 1.800 pta. (enkarguz)
- Karta: 2.000 pezetatik

ERRESERBAK: ☎ 88 69 13
ANDRA MARI, 5 BEASAIN



FERNANDO ARANA LEKUONA

Amerika, 2 ☎ 88 89 80
ORDIZIA

ORDIZIA AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76



Kale Nagusia, 11
☎ 88 93 17 **ORDIZIA**

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean
Larraitz bidea **GAINTZA** ☎ 88 98 48



*Zatoz Sannigeletan Gaintzara bertako
mondejuak probatzera*

Goieniz Zine-klubaren ziklo berria

Irailaren 25ean hasi eta abenduaren 18ra bitartean izango da Goieniz Zine-klubaren 97-98ko lehen zikloa. Abono txartelak salgai daude ohiko tabernetan, 2.000 pezetan. Ohi bezala, ostegunetan izango da zine-kluba, gaueko 9.00etan, Beasaingo Usurbe Antzokian. Jarraian duzue egutegia:

Irailak 25: 'Terciopelo azul'. David Lynch. EEBB, 1986.

Laburmetraia: 'Alicia'. Jaime Balaguera. Espainia, 1994.

Urriak 9: 'Lone star'. John Sayles. EEBB, 1996.

Urriak 23: 'Balas sobre Broadway'. Woody Allen. EEBB, 1994. **Laburmetraia:** 'Los amigos del muerto'. Itziar Bollaín. Espainia, 1994.

Azaroak 6: 'La frontera'. Ricardo Larrain. Txile-Espainia, 1991. **Laburmetraia:** 'Pregunta por mí'. Begoña Vicario. Euskadi, 1996.

Azaroak 20: 'Porco Rosso' (marrazki bizidunak). Hayao Miyazaki. Japonia, 1993. **Laburmetraia:** 'Xicu'l Toperu'. Gonzalo Tapia. Espainia, 1994.

Abenduak 4: 'Los amantes del Pont-neuf'. Leos Carax. Frantzia, 1991. **Laburmetraia:** 'Tropismos'. Francisco Plaza. Espainia, 1995.

Abenduak 18: 'Nosferatu, el vampiro' (zuzeneko musikaz girotua). F.W. Murnau. Alemania, 1922. 'Las novias de Dracula'. Terence Fisher. Britainia Handia, 1960.



Ordiziako aparteko azokan AEK-k egindako baserriko produktuen zozketan Xanti Valor, Lazkaoko Manuelene tabernako Xanti, izan zen saritua, 973 zenbakiarekin.

Iñaki Azurmendi

Arriarandar aizkolariak Gipuzkoako lehen mailara igotzeko txartela lortu du, baita bigarren mailako Euskal Herriko finalerakoa ere.

Txiki

Mandubian jokaturako Gipuzkoako artzain txakur txapelketa, Jose Antonio Arrillagaren 'Txiki' txakurak irabazi zuen. Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, jende ugari elkartu zen bertan.

'Obsexuen Kluba'

Xabier Mendiguren Elizegi beasaindarrak gazteentzat

'Obsexuen Kluba' liburua kaleratu berria du. Gazte-txoak sexuari buruz hitz egiteko elkartzen direnakoak kontatzen ditu. Argumentua: 14 urteko hiru gazteren obsesiorik handiena sexua da eta hori dela eta Obsexuen Kluba delakoa osatzea erabakiko dute. Klub berezi horretan gertatutakoak, eta 3 mutil gazte horien abentura eta bizikizunak kontatzen ditu beasaindarrak.

Furundarena

Aitor Furundarena ordiziar akordeoi-joleak ETB-lean Super Bat saioa aurkeztuko du, Ixiar Orejarekin batera.

Karlos Cuadrado

Abuztuaren 19an Venezuelako Pico Bolívar mendian desagertu zen ordiziarraren berririk ez dago. Bere bila aritu ziren familiarterako eta lagunak aste honetan bertan itzuli dira.

Aitor Garmendia

Itsasondoar txirrindularia Banesto taldera itzuliko da berriro ere, datorren denboraldian. Once taldeak ordaintzen dionaren bikoitza ordainduko omen dio Banestok.



- ✓ Liburuak
- ✓ Jostailu didaktikoak
- ✓ Eskola materiala
- ✓ Bulego materiala
- ✓ Fax zerbitzua

Elosegi, 16

88 65 00

LAZKAO

Fandango

- ✗ Musika tresnak
- ✗ Megafonia
- ✗ Baxu eta gitarra klaseak

Domingo Unanue, 2 16 10 73

ORDIZIA

- ✓ Matematika
- ✓ Fisika
- ✓ Kimika
- ✓ Teknologia
- ✓ Lengua-Euskara

GOIERRI AKADEMIA

✓ INGELESA

- Orokorra: maila guztiak.
- Komertziala: administrazioa, modulo, goi ziklo eta unibertsitateko ikasleentzat.
- Teknikoa: lanbide heziketa, modulo, goi ziklo eta unibertsitate ikasleentzat.

Talde txikiak

✓ MARRAZKETA TEKNIKOAK

- Mekanika
- Galdaragintza: plano interpretazioak, desarrolloak.
- UBI, unibertsitarioak, selektibitatea

Kale Nagusia, 32

88 82 03 - 16 01 93 - 16 20 69

BEASAIN

Goierritar saridunak Ordizian



Elkarteen arteko Sukaldaritza lehiaketa Ordiziako Jai-Alai elkarteak irabazi zuen.



Iñaki Kanpos ormaiztegiarraren odolkiak izan ziren lehiaketako onenak.



Pirenaika arrazako ganaduen lehen saria Idiazabalgo Pedro Katarainek jaso zuen. Bigarren postua, herri bereko Prudentzio Urkiak.



Idiazabalgo Ane Aseginolazak jaso zuen fruitu lehiaketako saria. Bigarren Zaldibiako Jesus Irazustabarrena izan zen.



Eugenio Arana ordiziarrak oilo lehiaketako hirugarren saria eskuratu zuen.



Gazta txapelketan 5. postua lortu zuen Kontxi Aldasoro mutilorrek.



Lazkaoko Untzidegi baserriko Jose Migel Garmendiak 3. saria jaso zuen barazkietan.

JESUS ARANBURU IDIAZABALDARRA GAZTA TXAPELKETAKO IRABAZLEA:

"Idiazabalek galduta zuena berreskuratzen ari gara, punta-puntan gaude berriz ere"

Zorteko dabilta azkenaldian Idiazabalgo Ondramuño baserriko Jesus Aranburu eta bere sendia. Iaz Euskal Herriko gazta txapelketaren jabe egin zen. Aurten, irailaren 7an, Legazpin jokaturako Gipuzkoako txapelketan 5. egin zuen. Eta txapelik garrantzitsuena, irailaren 10ean eskuratu zuen: Ordiziako txapelketa.

- Sari ugari irabazi dituzue azkenaldian.

- Duela 3 urte hasi ginen lehiaketetan aurrean ibiltzen. Orain dela bi urte ama aurkeztu zen Ordizian eta laugarren egin zuen. Punta-puntan gabilta azkenaldian, itxura denez, puntua asmatu diogu. Gazta guztiak onak egoten dira, baina gazta bat lehiaketara aurkeztuko puntu bat behar du.

- Iaz Ordiziakoa ere beste idiazabaldar batek irabazi zuen.

- Galdutakoa berreskuratzen ari gara, punta-puntan gaude berriz ere. Zerbaitegatik dauka Idiazabal izena. Gauza ederra da, jarraitzea, herriarentzat, gaztarentzat eta guretzat. Idiazabal da gaztaren kapitala.

- Gaztak egiten noiztik ari zara?

- Mutikotatik. Lehen beste era batera egiten genuen. Orain teknologia aldetik erabat modernizatuta gaude.



de. Altzairuzko ontziak, kamarak... Erabat aldatu da, eta emaitzak ere ikusi egiten dira. Gazta berdintsuagoa ateratzen da.

- Non ibiltzen dira ardiak?

- Ardiak etxeko larreetan eta etxe inguruko enetan ibiltzen ditugu. Beti ere, Idiazabal eta Segurako larreetan. 170 buru ditut.

- Gazta on bat egiteko sekretua zein da?

- Ondo jetzi behar da ardia. Garbitasunak garrantzia izugarria dauka. Esnari eman beharreko tratamenduak ere bai, esnearen tenperaturak... Gazta egiten ari zarenean gainean egon behar da. Kamaran ere zaindu egin behar dira gaztak. Normalean gatzagi nahasia (etxekoa eta farmaziakoa) erabiltzen dugu, ahalik eta naturalena atera dadin. Gatzagi naturalarekin bakarrik eginez gero, oso fuertea ateratzen da. Azoketan asko ibiltzen gara saltzen, eta jende normalak gazta suabegoa eskatzen du.

- 14 gazta finalistetatik 10 ketuak ziren.

- Guk ketu egiten dugu. Idiazabalen beti egon izan da ohitura gazta ketzeko. Hori bai, gazta ketzerakoan egurrak zerikusi handia dauka. Egur batzuekin hobeto errazago hartzen du kea.

- Zein egur da hori?

- Guk gereziandoarekin eta altzarekin ketzen ditugu. Gehiegi ketuz gero, gaztari ke gustoa sartu egiten zaio eta gazta gustoa kendu. Egur txar bat sartuz gero, denbora gehiago eduki behar da gazta eta kea sartu egiten zaio.

- Aurtengo urtea zer moduzkoa izan da?

- Udaberria oso ona izan da, lehorra. Asko kejatu ziren jan gutxiago izan zutela eta, baina gu oso ondo. Janak alimentu gehiago izaten du eguzkiak emandakoan.

- Lehiaketara aurkeztutako gazta noiz egindakoa zen?

- Maiatzekoa. Normalean orduan eguzkiak indar gehiago izaten du eta jana

ere hobia izaten da. Zein gazta aurkeztu erabakitzea gogorra izan zen. Egiten dugun txanda bakoitzeko 10 gazta politenak apartatu egiten ditugu. Garaia iristen denean, bat probatzen dugu eta gero bere anaia aurkeztu dugu. Aitak, amak, anaiak eta nik aukeratzen ditugu. Nik Legazpira eramana nuena Ordiziakoaren anaia zen, baina 5.a egin zuen. Nik konfidantza handia nuen. Baina Legazpin eguraldia hotzagoa izan zen, Ordizian primerakoa.

- Eguraldiak horretan ere garrantzia dauka orduan.

- Izugarria. Kamaratik atera berria den gazta jan edo bere izerdia ateratzen duen gazta beroxeagoa jan, beste gusto bat dauka. Gaztak probatzeko eguraldi oso ona zegoen asteazkenean.

- 570.000 pezeta ordaindu du Prycak zure gazta erdiagatik.

- Nire gazta guztiengatik hori ordainduko balute ez nintzen han egongo. Prezio horregatik osoa ere emango nioke. Ketugabea 1.600nean eta ketua 1.700nean saltzen dugu.

- Nola bizi izan zenuen irabazle izendatu zintuzten momentua?

- Izugarria izan zen. Hainbeste kazetari eta argazkilariri... Beste mundu batean nengoen. Eskerrak iaz Euskal Herriko txapelketa irabazi nuenik, eta piska bat ohituta nagoenik. Lehenengo gogorragoa izaten da.


MIGEL IRIZAR ORMAIZTEGIARRA PERUN GOTZAIN:

"Euskal Herrian ez nuke gotzain izaten jakingo"

Miguel Irizar Ormaiztegiar pasiotarra duela 32 urte joan zen lehenengo aldiz, Euskal Herritik Peru aldera. Lima hiriburuan eta Amazonia oihanean aritu da apaiz lanean. Duela 25 urte, Gotzain izendatu zuten. Zilarrezko ezteiak ospatzera, denbora luzeagorako etorri da Ormaiztegiko Migel Irizar.

63 urte ditu, 38 urte zituela egin zuten gotzain, "gotzain egiteko gaztea". Perura joan zen apaiz eta irakasle lanak egin behar izan zituen lehenengo. Euskal Herrira itzuli zen handik 6 urtera eta Deustun irakasle lanean aritu zen. Gero Perura itzuli berriro, eta hantxe gelditu da. Ormaiztegiar peruarra da Migel, peruar nazionalizazioa baitauka.

1989az geroztik, Peruko hiriburuan bizi da Migel. Aurretik, Amazonas oihanean bizi izan zen, 17 urtez. Bi misio dituzte oihanean barna. "Ibaiak besterik ez daude han, 70.000 kilometroko barrutia neukan. Bizilagun oso gutxi ziren baina lurralde oso handia. Errekaz ibili behar da, beste biderik ez dago. Oso bizi berezia da hura. Baina niretzat aukera handia izan zen, nahi diren programak egiteko, ez dago egiturarik zure kontra egingo duenik. Gure fede lana, ebangelizazioa egiten gunden eta gizonen promozioa, hezkuntza, osa-



"Oihanetik hiriburura edo kostaldera ezberdintasun handia dago, beste nazio bat izango balitz bezala".

sun aldetik. Oinarritzko lanbide eskola martxan jarri gunden eta baita aroztegi tailerra ere, egur asko baitago han", dio Migelek.

Oihanean momentu larriak bizi izan zituen. "Orain dela 16 urte, terrorismoa hasi zen, Sendero Luminoso deitzen ziena eta MRTa. Oihaneko narkotrafikoarekin nahastu ziren. Ni negoen lekuan koka ereiten zen. Beraien artean hartueman zegoen, terroristek dirua behar zuten eta narkotrafikoaren bidez lortzen zuten, armen truke. Oso borroka gogorra izan zen. Ni momentu hartan sozial lanean oso sartuta nengibilen eta nire bizia arriskuan ikusi izan nuen behin baino gehiagotan, bai alde batetik, bai bestetik, baina batez ere narkotrafikoen aldetik. Terroristak gure kontra ez ziren ibiltzen, errespeto gehixeago zeukaten, nahiz eta gure lanak estorbo egiten zieten. Guk pertsona guztiak errespetatu behar genituen. Oso mutil gazteak

zeuden terrorismoan sartuta. Oso gogorra zen gai hartaz hitz egitea", gogoratu du. Gaur egungo Peruko estatuburua den Fujimorik boterea hartu zuenean, "terrorismoa ez zen bukatu, baina dominatuta dago".

Ezberdintasun handia

1989an, oraingo Aita Santuak Limara, Callaora, joateko esan zion. Hura beste mundu bat omen da. "Callao Limako zati bat da, herri handia da. Oihanetik hiriburura edo kostaldera ezberdintasun handia dago, beste nazio bat izango balitz bezala. Barruan daude nak atzeratuta daude. Hemen Euskal Herrian ez dago alderik Ormaiztegin edo Donostian bizita. Perun ezberdintasuna handia da oso, aurreratuagoak daude. Baina horrek ez du esan nahi hirian bizi direnak ondo bizi direnik. Behartsu asko dago, lanik ez dago, gazte eta haur asko...". Gaur egun dagoen Peruko arazorik handiena, pobrezia da Migelen esanetan.

Japoniako enbaxada

Perutik jaso izan dugun azken berri nagusietarikoa, MRT taldeak Japoniako enbaxada hartu eta bertan zeuden lagunak bahituta izan zituztenekoa izan da. Migel Irizar egun eta momentu hartan, enbaxadan egotekoa zen. Baina elizkizun bat zela medio, atzeratu egin zen. Arazoa elkarriketaren bidez konpontzearen aldekoa zen bai Migel, bai Eliza. "Fujimoriren ejerzitoa enbaxadan sartu eta bahitzailer guztiak hil zituen. Denok gelditu ginen gaizki. Eliza ere sartu zen mahaian. Irteera baketsua nahi gunden. Fujimorik bere erabakia hartu eta indarrez hartu zuten enbaxada. 14 terroristak hil ziren, 2 soldadu eta bahitu bat ere bai. Irteera hori nahiko gogorra izan zen. Alde batetik jendea aspertuta zegoen eta hori akabatu da esan zen hasieran. Baina kezka bazegoen, zergatik hil zituzten denak. Bertako gotzainarentzat oso gogorra izan zen".

Ormaiztegiarrak esan digunez, ordea, Fujimori lehendakariarentzat gauzak okertu egin dira. "Fujimorik uste du hurrengo hauteskundeetan aurkeztu behar duela, nahiz eta Konstituzioak ez utzi. Berak dio lege barruan egin daitekeela. Juristek, ordea, ezezkoa diote. Tribunal Konstituzionaleko hiru kontra azaldu ziren eta kanporatu egin dituzte. Horrekin Fujimoriren irudiak behera egin du". Gogorra, berekoia, diktadore txikia da Fujimori, Irizarren esanetan.

Elizak irudi ona

Fujimoriren arazo honetan Elizak zein jarrera duen azaldu digu: "instituzioak errespetatzen ez badira eta legeak errespetatu behar dituzten agintariek ez badute legerik betetzen, nola eskatu besteei legea errespetatzea. Pertsona batek ezin du herri bat bakarrik landu. Tarteko bideak behar dira".

Elizak irudi ona dauka Hego Amerikan, "herriaren ondoan dago. Bai terrorismoa izan zen garaian, bai politika gaiak mugitzen direnean... gure hitza beti entzuten da. Han ez dago Elizaren aurkakorik. Euskal Herrian Eliza orain dela 40 bat urte zegoen bezala dago Perun. Errespeto osoa dago Elizarekiko. Momenturik larrienetan ere Eliza beti hori egon da eta herriak sentitu egiten du. Ez dut esan nahi egiten dugun guztia ondo dagoenik, gure artean ere baditugu ezberdintasunak, baina gure lekua badauka-



23 urterekin apaiztu zen Arantzazun. Osaba apaiza zuen eta iloba ere, Juan Kruz Mendizabal apaiza du. Mutil bihurria bazen ere, akolito lanak egiten zituen Migelek. 'Horiek bezalakoa izan nahi nuke', pentsatzen omen zuen. 11 urterekin Seminario txikira joan zen. Piskaka piskaka bokazioa argitu zitzaion,

"urteak behar baitira bidea hartzeko. Urte haiek ere ez ziren berdinak, asko joaten ziren orduan Seminarioa. Nik ilobari esaten diot berak meritu gehiago daukala, gaurko gizartea dagoen bezala, apaiz sartzea".

Euskara ederki mantendu du. Berak dioen bezala, oportet euskara praktikatzera etortzen da Ormaiztegi. "Behin ondo ikasitakoa ez da ahazten. Guk erdara gainera Seminarioan ikasi genuen. Baina euskara ere ondo ikasten genuen Seminarioan". Migel gogoratu nahi izan duenez, "euskara eta euskal kultura asko elizgizonek edo Seminarioek gorde zuten, bestela gehiago galdu ta egongo litzateke".

Bilboko gotzaina euskalduna ez zela eta iskanbila ugari sortu zen duela pare bat urte. Migel Irizarren izena ere tartean ibili omen zen, Madrilgo ABC egunkarian behintzat. "Ni gotzain izanda, nik ere pentsatu nuen Bilboko gotzainak euskalduna izan behar zuela. Baina Eliza katoliko unibertsala denez, hori gertatu da. Ni Perun, euskalduna izanda, gotzaina naiz. Haiek ere berdina esan dezakete. Nik uste dut hemen go egoeran bertakoa izan balitz hobe izango zela", aitortu digu. Aukera izanez gero, Bilboko gotzain postua hartuko ote zukeen galdetu diogu. "Ez nuke jakingo Euskal Herrian gotzain nola izan, nik utzi nuen herria asko aldatu dute". Zaila ikusten du Euskal Herri- ra itzultzea. Euskal Herrian beste arazo bat ere ikusten du Migelek: "hemen gehiegi jaten da".

"Perun ez dago Elizaren aurkakorik, errespeto osoa dago Elizarekiko, Euskal Herrian duela 40 urte bezala"

gu. Horregatik diot askotan, Perun gotzain izatea Euskal Herrian izatea baino errezagoa izan behar duela. Euskal Herrian arazo sozial handirik ez dago, baina beste arazo batzuk ditugu".

Euskal Herriko gazteak Elizatik urruti dabilela antzematen du Migelek. "Bizimodua asko aldatu da eta ikusten da gazte-jendea Elizatik urruti dabilela. Apaiz

gazte gutxi daude Euskal Herrian, eta daudenak zahartu egin dira. Perun alderantziz, apaiz gehiago ditugu han. Gu hemendik hara joan ginen, bertan apaizik ez zegoelako. Oraingo martxan alderantziz hasi beharko dutela, handik hona etortzen". Eliza gizartetik urrutiago dagoela sentitzen du Euskal Herrian. "Ez dakit nola lortu daitekeen komunikazio hori. Nik Perun esaten dut nire kezka ez

dela elizara joaten diren fededunak, elizara joaten ez direnak baizik. Gehienek Elizarekin kontaktu gutxi daukate. Orduan zer egin besteek Elizaren mezu hori hartu dezaten. Gure mentalitatea aldatu behar dugula esaten diet, ezin dugu itxaron, besteak etor daitezen. Kontaktu operazioa deitzen diot horri: nola kontaktatu jende horrekin. Orduan, gure eliz lanari beste giro bat eman behar diogu. Beharbada, etxez etxe joan behar dugu, edo Unibertsitatera, lanera... Euskal Herrian ere horrelako zerbait behar litzateke".

Euskal Herriko berriak gertutik jarraitzen ditu Mi-

gelek, Galeuscaren bidez, Euskal Telebista ikusten baitu Callaon. "Orain dela 15en bat urte, etorri nintzenean, sentitzen nuen, bai politika aldetik, ezberdintasunak zeudela, batzuk besteekin elkarriketa izatea asko kostatzen zen. Hori piska bat bigundu dela uste dut. Gure artean pertsona artean errespetoa egongo balitz, baita talde edo kolektibo artekoa ere, eta euskaldunon talentua, indarra, denak batera norabide batera jarritz, hori borrokatu behar litzateke. Gazteek zabaldu behar dute beste kultura bide bat: elkarriketa eta konprentzioa", dio Migelek.

ALTZAGA

Irailak 26, ostirala:

20:30etan: Txupinazoa.

21:00etan: Herri afaria.

Ondoren: Trikitixa, Goiatz eta Sararekin.

Irailak 27, larunbata:

18:00etan: Haur jolasak.

23:00etan: Triki Trake taldearekin erromeria.

Goizaldera: Langostino jatea, Artea elkartean.

Irailak 28, igandea:

10:00etan hasita: Goiz eresia Alegiko txistulariekin.

12:00etan: Meza Nagusia.

18:00etan: Aizkolari saioa: Legorretako Aitor Esnaola, Ataungo Iñaki Aierbe, Ibarako Unai Otaño eta Alzagako Axen Urretabizkaia. Egin beharreko lana: 10 kana erdiko ebakitzea.

Ondoren: Sagardo dastaketa: Legorretako Aulia, Ataungo Urbitarte, Ikaztegietako Begiristain eta Alzagako Olagi sagardotegietako sagardoa. Lazkanoiturburu trikitilari bikoteak alaituko du.

Argazki zaharren erakusketa jarriko da Udaletxean, goizeko 11.00etatik arratsaldeko 7.00ak bitartean.

Irailak 29, astelehena: San Migel Eguna:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Trikitilari eta bertsolari saioa.

14:00etan: Herri bazkaria, trikitilari eta bertsolariek alaiturik.

19:00etan: Toka txapelketa.

Ondoren: Trikitilariak goizalderarte.

GAINTZA



Irailak 26, ostirala:

12:00etan: Suziriekien festa hasiera.

14:30etan: Gazte bazkaria.

hausketa.

19:00etan: Mondeju eta ardoa leporaino egin arte.

23:00etan: VII. Dantza txapelketa (10 bikote).

Ondoren: Toka txapelketa herriarrentzat.

23:00etan: Dantzaldia Zabaleta eta Imanolekin.

Irailak 27, larunbata:

3:30etan: Plater

Ondoren: Koldo eta Arantxa Iparragirre trikitilariak.

Irailak 28, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: XIV. Txirrindulari igoera.

Ondoren: Jubilatuentzat hamaiketako.

17:00etan: Haur jolasak eta Txoronpio, Pantxi eta Pantxo pailazoak.

Ondoren: Asto lasterketa.

Jarraian: Agurtzane Elustondo eta Aitziber Estanga trikitilariak.

Irailak 29, astelehena:

11:00etan: Meza Nagusia.

14:30etan: Herri bazkaria. Xabier Sukia, Ibai Esosain eta Eusebio Lasarte txiste-kontalari eta bertsolariekin, eta Laja eta Landakanda trikitilariak.

Ondoren: Laja eta Landakanda trikitilariak goizalderarte.

ALTZAGARATE JATETXEA

- Eguneroko bazkariak
- Bataio, jaunartze, ezkontza...
- Udazken-negu sasoian babarrunak, bere lagungarri guztiekin

☎ 88 41 96

ALTZAGA



ALTZAGAKO UDALA

Herriar guztiei eta egun hauetan bitatuko gaituzunei feta alai eta zoriontsuak opa dizkizuet.

Alkateak



GAINTZAKO UDALA



Jai zoriontsuak herritarroi!

GOIERRITARRA



88 96 12

ORDIZIA

Obrak nonnahi



Dagoeneko konturatuko zineten herri guztia hankaz gora daukagula. Alde bate-tik, hiri-guneko kaleetako zoruen berrikuntza lanak di-rela eta, Goen Kaleari dago-kio oraingoan txanda. Goi-tia kalea edo "oilo kalea" bezala ezagunagoa den zo-ruko eginbeharrak bete on-doren, udaletxeko aurre-kontuaren partida bat Goen kalerako dago zuzendua. Hau dela eta, argazkian ikus daitekeenez, lurra altxatu eta hoditeria berriak sartzen dabilta langileak ondoren Goen kalean ezarritako zoru mota bera jarri asmoz.

Bestalde, Garagartza Plazan zegoen etxe zaharra

bota eta erabat itxuraldatu-rik geratu da gune hori. Zuhaitz batzuk botatzeaz gain iturria ere desagertu da bertatik. Etxea botatzerako orduan, gainera, susto ede-rra hartu zuten Ordizia Ka-leko hainbat bizilagunek. Izan ere etxe zaharraren az-ken ormak botatzerakoan, kontrako aldera erori eta ondoko etxea jo zuten hain-bat harrik. Sustoa besterik ez zen izan eta segituan hustu zituzten harategi gai-neko etxebizitzak. Ondoren, aurreko ale batean azaldu genizuen bezala, etxe berria egitera dihoazela, azpikal-deko garaje eta guzti. Iturri berria ere izango da.

Azkenik, San Juan auzo-ko lanak ere hasi berriak di-ra. Eskabadorak hasiak dira lurak mugitzen eta epe motzera etxe berriak erai-kitzeari ekingo diote.

Futbito txapelketa

Euskal festak pasa ondoren ohi denez herriko futbito txapelketari ematen zaio ha-siera. Aurten ere lehen bile-rak eginak daude eta edizio berri bati laster emango zaio hasiera. Txapelketari buruzko informazio gehia-go izango duzu hurrengo ale batean.

Azoka berezia

Euskal astea amaitu zaigula eta Eguberriak arte itxaron beharko dugu hurrengo jaietaz gozatzeke. Euskal festen barruan asteazkeneko feri berezia izan zen duda-rik gabe egunik puntakoena eta esan, bertan, eguraldia lagun jende ugari bildu zela hiri-guneko kaleetan zehar. Sari banaketak ere egin zi-ren eta honen berri aurreko orrietan datorkizula aipatu besterik ez.

Aitor Calvillo

Dantzari Txiki eguna

Irailaren 21ean egingo da dantzari txiki eguna. Ekai-naren leian egitekoa bazen ere antolatzaileek atzera-tzea erabaki zuten. 10:30etan taldeei harrera egingo zaie eta hamaiketa-koa izango dute Txakur-txulon. 11:30etan herriko auzoetan dantza talde bakoitzak bere saioa eskei-niko du. 7 izango dira dantza taldeak: Beasaingo Aurtzaka, Lazkaoko Oin-Arin, Oreretako Ereintza, Zaldibiako Iztueta, Za-rautzko Gure txeru, Du-lantziko Haize eta Ordizia-ko Jakintza.

13:00etan alardea Joxe Miel Plazan, Ondoren baz-karia, dantzariak herriko etxeetan eta arduradun eta musikariak elkarte bate-tran.

17:00etatik 19:00etara, berriz, berbena izango da Enparantza Nagusian Goierriko "Trikizio" talde-arekin. Eguna amaitzeko, oraigarri bana emanez agurtuko



ORDIZIAKO
UDALA

97 - 98 KIROL EKINTZAK

AEROBIC-a

Astelehen, asteazken eta ostiralean, 9-10, 10-11, 15-16, 18-19, 19-20 eta 20-21etan.
Astearte eta ostegunean, 15-16, 19-20 eta 20-21etan.

MANTENU GIMNASIA

Astelehen, asteazken eta ostiralean, 19-20etan.

MANTENU GIMNASIA LEUNA (3. adina)

Astelehen eta asteazkenean 16-17etan.
Ostiralean 12-13etan.

IGERIKETA

Astelehenetik ostiralera 9-10etan.
Astelehen, asteazken eta ostiralean 20-21etan.
Astearte eta ostegunean 20-21etan.

JUDO

Astelehen eta asteazkenean 17-18 eta 18-19etan.

GIMNASIA ERRITMIKO eta PSIKOMOTRIZITATEA

Astelehen eta asteazkenean 17-18etan.
Astearte eta ostegunean 17-18 eta 18-19etan.



☎ 88 93 33

ORDIZIA

☎ 88 93 53

IDIAZABAL

Bitorianori azken agurra



Aurreko igandean (irailaren 14an) hil zen Bitoriano Telleria 81 urte zituela. Duela 53 urtetik herriko organista zen Bitoriano. Txikitatik zuen musikarako zaletasuna eta bizi guztian iraun dio.

Bederatzi urte zituela hasi zen pianoa ikasten eta berehala elizan armonioa jotzen hasi zen. Elizan bertan, berakasa ikasi zuen organoa jotzen, eta orduz geroztik makina bat ordu egin zituen Bitorianok elizkizunei musika jartzen.

Organista ezezik, txistulari trebea ere izan zen Bitoriano. 20 urte zituela Beasaingo txistulari plaza lortu zuen eta bertan 16 urte eman zituen.

Idiazabalen bertan, organista lanez gain, txistulari eta musika irakasle lanak ere egin zituen. Bitorianok musikarako zuen zaletasuna herrira zabaltu zuen.

Idiazabalen txistua eta solfeoa ikasi duten guztiek

erabilitako lokala berak jarri zuen martxan.

Musikari eskantako bizi izan zuen Bitorianok,

baina beste lan asko ere egin beharra izan zuen, tabernari, taxista eta kamiozale izan zen ofizioz. Hala ere afizioa bakarra zuen: musika.

Herritar ugari bildu zen astelehenean Bitorianoren aldeko hileta elizkizunean. Parrokiko koruaren kantuek, berak hainbestetan jotako organoak, eta txistu doinuek eman zioten azken agurra.

Jubilatuen eguna

Irailaren 21ean, igandean, ospatuko da jubilatuen eguna.

San Migel jaiak Ursuaranen

Irailak 26, ostirala:

19:30etan: Jaiei hasiera suziri eta kanpaiekin.

Ondoren: Afariak: mondejuak, gixadua eta arditxuletak.

22:30etan: III. Mus azkarra.

Irailak 27, larunbata:

12:00etan: Meza Nagusia. Ondoren: Agirre eta Lazkano bertsolariak eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.

14:00etan. Udaletxe bazkaria.

17:00etan: VI. Toka lehiaketa. Ondoren: Bertsolariak.

Iluntzean: Afariak eta jarraian trikitixa goizalderarte.

Irailak 28, igandea:

11:00etan. Meza.

12:30etan: Aizkolariak: Arria aita-semeak Aierbe aita-semeen aurka.

14:00etan: Herri bazkaria, Begiristain eta Zeberio bertsolariak eta Ainhoa Munduate eta Olatz Nograro trikitilariak.

17:00etan: Haur jolasak eta txokolate jana.

23:00etan: Jaiei amaiera.

na. Urteroko moduan meza nagusia eta ondorengo bazkaria izango dira egun horretako egitaraua. Aurten bazkaria Olaberriako Zaladiak jotetxean izango da. Bertara joateko antolatzaileek autobusak jarriko dituzte.

Guztira 65 urtetik gorako 371 lagun daude Idiazabalen. Horietatik 225ek hartuko dute parte igandeko festan. Gainontzekoei, gaixo edo ezinduta daudenei, etxera oparia bidaltzen zaie.

Jubilatuen eguna, Guraso Elkarteko taldeak antolatzen du Udalaren laguntzarekin. Antolatzaileek era berean Ampo, Kutxa, Euskadio jutxa eta Jaso lantegiaren laguntza jasotzen dute.

Ordizian sari ugari

Ordiziako Azoka bereziak aurtan ere sari ugari utzi ditu herrian. Garrantzitsuen, gazta txapelketako lehen saria. Jesus Aranburuk lortu du lehen saria, honenbestez herrira etorri da bi urtez segidan lehen saria, iaz Domingo Goiburuk irabazi baitzuen.

Sariak irabazi dituzte era berean, Ramon Aseginolazak fruitu lehiaketan eta Pedro Katarain eta Prudentzio Urkiak ganadu lehiaketan.

Xabier Urteaga

ZELATA TABERNA

Uhaitz, 1 LAZKAO

MANUEL-ENEA TABERNA

☎ 88 20 29

Elosegi, 5 LAZKAO

GIROA taberna

Pintxo ederrak jateko aukera

Areso, 6 ☎ 88 77 40 LAZKAO

LAZKAO

Sanmielak ekitaldiz gainezka



Urtero eta urte sasoi hone-tan hainbat festa eta ekitaldiz gozatzeko aukera ezin hobea daukagu. Aurten gainera ekitaldi hauetako batzuk berezi xamarrek izango dira, hala nola, Esparruko Erromeriaren 50. urteurrena ospatuko baita. Hau dela eta argazki erakusketa ikusgai izango duzue gaur eta bihar.

San Mielelako beste ekitaldi berezi bat Dantzari Txikien Eguna izango da. Irailaren 28an, igandean, Goierriko dantzari gazteenek Euskal Herriko hainbat dantzaz gozatzeko aukera eskeiniko digute. Dantzariei etxe desberdinetan emango zaie bazkaria, zure etxean dantzariak hartzeko asmoa baduzu, deitu 88 72 09 edo 88 25 31 telefonotara. Bestetik, Oin-Arin dantza taldean parte hartu nahi dutenei (dantzari edo txistulari) dei bat egiten zaie juntakoen partetik, animatu eta aurreko telefonoetara deitze-ko.

Ekitaldi guzti hauek San Miel egunean amaituko dira, hauen berri zehatzagoa ondoren doa egitarau modura.

Koadrilen arteko VI. Futbol txapelketa

Martxan da koadrilen arteko futbol txapelketa. Aurreko urtetako arazo batzuk medio, aurten ez zegoen antolatuko zenaren itxura haundirik, baina azkenean animatu dira. Antolatzaileek laguntza guztia eskertuko dute eta dena ondo atera dadin.

Izenematea irailaren 27rako egin beharko da Alboka edo Polikiroldegiko tabernetan. Gutxienez 11 jokalaria eta gehienez 17 izango dira, eta hauetatik 3 jokalaria gehienez Lazkaotik kanpokoak. Izena ematera-koan 15.000 pezeta eta jokalaria bakoitzaren NANren fotokopia utzi beharko dira.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*

Esparru-97. Erromeria.

Irailak 20, larunbata:

19:00etan: Herriko txaranga eta buruhandiek kaleak alaituko dituzte. Ondoren poteo herrikoia txarangak lagunduta.

Irailak 21, igandea:

9:00etan: Esparrurantz irteera, plazatik.

11:30etan: Ikurrinaren jasoa tontorrean. Ondoren haur-jolasak, herri kirolak, trikitalari, txistulari eta bertsolariak, bazkari herrikoia, dantza saioa eta sorpresak.

18:00etan: Ikurrinaren jaitsiera eta herrira itzulera. Eguraldi txarra eginez gero, jokoak, herri kirolak eta bazkaria herrian bertan egingo dira, baina goizean Esparrura igoko dira ikurrinari omenaldia egitera.

Argazki erakusketa:

Erromeriaren 50. urteurrena dela eta, argazki erakusketa egingo da Udaletxeko Areto Nagusian ondorengo egun eta orduetan: **irailak 19:** 19:00etatik 21:00etara; **irailak 20:** 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

Irailak 25, osteguna:

15:00etan: Marrazki arratsaldea eta txokolate jana partaideentzat.

Irailak 26, ostirala:

16:00etan: Street Basket, plazan.

Irailak 27, larunbata:

17:00etan: Shorinji-kenpo erakustaldia Kiroldegian.

18:00etan: Sagardo dastaketa. Lazkaoko talogileek taloak banatuko dituzte.

19:00etan: Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

Irailak 28, igandea:

Dantzari Txiki eguna:

11:30etan: Plazan dantza taldeei harrera.

13:00etan: Alardea Herriko plazan.

17:00etan: Dantza taldeen emanaldia plazan.

Irailak 29, astelehena:

San Miel eguna:

12:00etan: Meza San Miguel Parrokian. Lazkao abesbatzak bertan abestuko du.

12:30etan: Pelota partiduak.

13:45etan: Jubilatuen autobusen irteera Victor jate-txera.

14:00etan: Herriko jubilatuen bazkaria.

16:30etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia, plazan.

19:00etan: Neska areto-futbol txapelketa. Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

19:30etan: Drindots, plazan.

20:00etan: Herri-afaria, Kiroldegiko arkupean.

22:30etatik 2:00etara: Drindots.

**ANSOATEGI
HERRIKOA**

Sanmiel zoriontsuak herriarrai eta kanpotik etorritzen direnei

☎ 88 68 52 ☎ Elozegi, 15
LAZKAO

**ESTANKO
TABERNA**

Sanmiel zoriontsuka denoi!

Elozegi, 17

LAZKAO

taberna

Uhaitz, 2

☎ 88 71 97

LAZKAO

BEASAIN

Kimuak aisi taldearen jaiak larunbatean



Kimuak taldeko partaideak.

Duela 10 urte Kimuak-Basajaun sortu zen, haur eta gaztetxoek aisia zegoen hutsunea bete nahian. “*Eliz taldeak bakarrik zeuden. Eta gazte talde batek beharra ikusten zuen hezkuntza ez erlijioso batean, haurrek aisia erabiltzen jakin zezaten*”, diote Kimuak-eko begiraleek. Era berean, aisialdian, jolasen bitartez, euskara, euskal kultura eta ekologismoaren baloreak sartzeko asmoarekin. “*Jolasen bidez kontzientzia har dezaten herri honek dituen nortasun propioak. Haurren aisia ondo bideratzea oso garrantzitsua da. Askotan ez diogu behar bezalako garrantziarik ematen*”.

Garai okerragoak pasatu ditu Kimuak-ek, haur eta begirale gutxi izan baizituzten. Aurtan, ordea, finkatu egin dela esan daiteke. 7-14 urte bitarteko 30 lagunekoa taldea (3 taldetan banatuta) eta 8 begirale finko baitaude. Bertan parte hartu nahi dutenek ez daukate inolako kuotarik ordaindu beharrik. Larunbatero biltzen dira Gazte Asanbladak zuen lokalean, Kale Nagusian, arratsaldeko 5.00etatik 7.00etara. Mendira joan, jo-

koak, ikastaroak, zanko taldeak, udalekuak... denetarik egiten dute.

Kimuak taldea, ordea, ez da Beasainen bakarrik dagoen taldea. Bizkaiko hainbat herritan ere badaude taldeak, guztien helburuak berberak izanik.

Aurtan ikasturtea ondo hasteko eta 10 urte betetzen dituela aprobetxatuz, Kimujaia antolatu du Kimuak-Basajaun taldeak, larunbaterako, hilaren 20rako. “*Kimuak-ek herrian funtzio bat betetzen duela erakutsi nahi dugu eta ateak irekita ditugula. Era berean, 10 urte hauetan Kimuak taldea lagundu dietenei eskerrak eman nahi zaie. Jaian haur, begirale eta gurasoentzat ekintzak antolatu dira*”. Festa **11:00etan** hasiko da. Beste herrietako Kimuak-eko taldeei ongi-etorria egingo die Geltokian. **12:00etatik 14:00etara**: argazki eta filmina erakusketak, Kimuak-en historia eza-gutzeko, Kimuak-en lokalean. **12:30etatik 14:30etara**: pregoia, Basajaun eta Mariren eskutik. Ondoren herri-kirolak guztientzat, San Martin plazan.

14:30etan: herri-bazkaria, Plaza azpian. Txartelak ohiko tabernetan daude salgai, 1.000 pezetan. **17:00etatik 20:00etara**: Kimua ekitaldia: haurrek prestatutako ikuskizunak. Jendeari esker emateko hainbat diploma banatuko da.

Parroko berria

Andra Mari Jasokundearen elizan parroko berria dugu irailaren 13az geroztik: Berrobiko Bittor Gorria. Orainarteko parrokoa, Iñaki Zabaleta, Madrilera joan da ikasketak burutzera, Beasainen 13 urtez egon ondoren. Izendapen berriaren elizkizunean, Jose Maria Setien Donostiako gotzainak hartu zuen parte. Bittor Gorria Legazpitik dator; aurretik Alemanian eta beste hainbat misiotan ibilia da.

Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa

Begirale ikastaroa egiteko, ikastaroa amaitzen den urtean 18 urte bete behar dira. Taldea osatuz gero, ikastaro urriaren 3. astean hasiko da eta 200 ordukoa izango da.

Zuzendari ikastaroa egiteko 21 urte bete behar dira eta Begirale titulua behar da. Taldea osatuz gero, ikastaroa azaroaren 2. astean hasiko da.

Izenak emateko urriaren 10erarte dago irekia, Udaletxeko Euskara-zerbitzuan (88 75 12).

Ikastaroak

Udalak honako ikastaro hauek antolatu ditu urriariko: marrazki eta pintura; antzerkia; keramika eta esmaltatua; argazkigintza; eta magia. Urbieta Arte taile-

rrean emango dira aurtan ikastaroak. Izena eman nahi duenak, Udaletxeko Kultura sailean eman behar du (88 50 51).

Lazkaibar auzoko jaiak

Iaz berreskuratu zituzten Lazkaibargo auzotarrek Ama Mesedetakoaren jaiak. Bi egunetarako egitaraua prestatu dute aurtan, irailak 21, igandea; eta irailak 24, asteazkena.

Igandean, eguerdiko ordu batean, Beasaingo Jasokundearen Elizan, hildako auzotarren aldeko meza izango da. Ondoren, 14:30etan, Senpereko Merkatalguneko Abdon jatetxean, bazkaria izango dute. Bazkalondoren, bazkariko zaharrenari omenaldia eskainiko zaio.

Asteazkenean, arratsaldeko 6.00etan, txupinazoa- ren ondoren, auzoko II. Toka txapelketa izango da. Udal Txistulari Banda bertan izango da. Ondoren, Estanko tabernan mokadutxoa. Jaiei amaiera emateko, Agur Jaunak kantatuko dute.

Kutxa-txartela euskaraz

Kutxak eta Udalak kutxazain automatikoak euskaraz erabiltzeko kanpainaren barruan, uztailen sarituak izan direnak hauexek dira: M. Nieves Etxeberria Mendia, Asier Garmendia Arostegi eta Faustino Mendiguren Larrea. Irrati-kasete baina jaso zuten joan zen asteartean. Uztaileko erabiltzaileak 800dik gora izan dira (apirilean kanpaina hasi zenean baino % 30 inguru gehiago).

ATAUN

Maumendiko borden aurreproiektua

Beste noizbait aipatu genuen lerro hauetan Maumendi inguruan borda batzuk eraikitzeke proposamena jaso zuela Ataungo Udalak. Gure parajeotara egun bat edo beste pasatzera datozenei, borda hauek alokeran eskaintzea da proposamena egin duen entrepresaren asmoa. Entrepresa honen kontura doaz horrelako egitasmo batek suposatzen duen inbertsioa eta bere esplotazioa. Udalak lurzorua utziko lioke (lurzorua herriarena izaten jarraituko du), baina urte kopuru jakin baterako eta beti ere aurretik zehaztutako baldintza batzuekin.


Proposamen hau jaso zuenetik, zenbait pauso eman du Udalak: maila ezberdinetako elkarte, erakunde eta antzekoekin bildu, txostenak eskatu, herriarroi informazioa zabaltzeko bilera bat deitu eta ospatu... Gainera, herriarren batek gai honi buruzko bere iritzia eman nahi badu edota proposamenen bat egin, horretarako aukera izango du, iritzi eta propo-

samen horiek udaletxean jasoko baitira irailaren 27 bitartean. Horrela, egitasmoaren alderdi onak eta txarrak agerian utzi nahi dira, horien arabera erabakitzeke.

Labur-labur

● **III. Ataun Aztergai beka** Iñaki Imaz Mujikari eman dio epaimahaiak (uztailaren 16an hartutako erabakia betez), "Miguel Imaz Apalategui-
ren azterketa historiko-biografikoa" deitu lan proiektua aurrera eramateko. Epaimahaia honako hauek osatu zuten: Tere Dorron-
soro (Joxemiel Barandiaran ikastetxeko zuzendaria), Jabier Agirre (Joxemiel Barandiaran Murkondo Kultur Elkarteko lehendakaria), Axier Auzmendi (Artadi elkartekoa), Jexux Aizpurua (aditua) eta Santi Etxeberrriak (Kultur Batzordeko arduradunak).

● **Udal liburutegiaren-tzat** ere oporrak bukatu dira eta betiko martxa hartu



du berriro. Irailak 15 geroztik irekita dago ondorengo ordutegi honekin: astelehene-
tik ostiralera arratsaldeko 5etatik 7etara eta larun-
batean, berriz, goizeko 10etatik 12etara.

● **Fosil erakusketa** antolatu du Ataun Kirol Elkar-
teak Udalaren babespean. Erakusketa hau udaletxeko ganbaran izango da hurren-
go egun eta orduetan: irailak 18 eta 19an, iluntzeko 8etatik 9etara; irailak 20ean (larunbata), goizeko 11.30etatik 1.30etara eta arratsaldeko 5.00etatik 7.00etara. Gainera, iraila-
ren 20ean, goizeko 11.30-
etatik aurrera, erakusketa-
ren arduradunen eskutik (Netus eta Oñatiko Taldea

dira arduradunak), azalpen eta argibide saio bat izango da, herriarrek ekarritako fosilen sailkapena ere egingo dutelarik. Beraz, etxean fosilen bat izanda bere berri zehatza jakin nahi duenak haxe egin behar du: fosila kaxa batean sartu, kaxari

bere datuak jarri eta udaletxera eraman erakusketa za-
balik dagoen garaian.

● **Herriko zikloturistek** ere hartu dituzte berriro bi-
zikletak, abuztuko atsede-
naldian indarberritu ondo-
ren. Hona hemen hurrengo bi irteerak: irailak 21ean Ataun-Azpeitia (75 km) eta irailak 28an Ataun-Sorabilla (70 km). Gogoratu irteera ordua: goizeko 8.30etan.

● **Uztailaren 27an** egin zuen sarrera ofiziala gure herrian **apaiza berriak**, Andoni Urresti mutrikua-
rrak. Ongi etorri gure arte-
ra!

Josune Aldabe

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
asteleheneetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

ChristianDior

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN

OPS Ingenieros S.L.

✖ **Topografiako Lanak:** lur neurketak, balorazioak.

✖ **Nekazal proiektuak:** bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...

☎ 18 00 84 - 18 00 33

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea ☎ 88 04 15 **ORDIZIA**
Industrialdea ☎ 16 07 07 **OLABERRIA**

URBITARTE
sagardotegia

Erreserba telefonoa
18 01 19

Ergoiena Auzoa
ATAUN

SEGURA

123 neska-mutikok hasi dute ikasturtea

Irailaren 9an hasi zuten Laiotz Herri Eskolakoek 97-98 ikasturtea. Orain goizez ari badira ere, 29tik aurrera egun osoz hasiko dira. Berrikuntza nagusia, aurten 2 urte beteko dituztenen eskolaratzea da. Hau borondatezkoa bada ere, guztiak, 11 ume, hasiko dira irailaren 29an. Horretarako gela bat egokitu da beheko eskolan.

Guztira 123 ikasle izango dira (70 mutil eta 53 neska), iaz baino 9 gehiago. Hauetatik 108 segurarrak, 10 zeraindarrak eta 5 mutiloarrak. 12 urterekin Beasainera (Loinazpe eta Ikastola) eta Lazkaoko Ikastolara joan direnak 14 dira. Aurten lehenengo aldiz eskolan hasi direnak, berriz, 8 haur, 7 mutil eta neska bakarra. Beheko eskolan, 2, 3, 4 eta 5 urteko Lehen Hezkuntzako 41 ume ibiliko dira eta goikoan 7tik 11 urtera bitarteko DLHko 3 zikloetako 82 haur. Irakasleak 14 izango dira, 7 berriak, herritarrak 3.

"Hegazti txokoa" itxi

Irailaren hasieran itxi zuten San Andres baserriko "Hegazti txokoa". Informazio gehiago 4. orrialdean.

Madurako bariantea

Madurako bariantearen inguruan, irailaren 15ean, lur jabeak Diputazioko teknikoekin eta udal ordezkariekin elkartu ziren. Teknikoak egin zuen azalpenaren ondoren, kaltetuen galderak eta zalantzak entzun ziren. Hauek, era ezberdinetakoak eta asko izan ziren, besteak beste, baserri eta lurretarako sarrerak, terrenoen zatiketak, konpentsazio ekonomikoak, baserri eta ibai inguruetako azterketak, eragin ekologikoa, desnibelak, plan espezialean azaltzen den Axkueta aldeko zerkaldeko trabesia aprobetxatzea... Honek guztiak eragin zuen kezka ikusirik, bariantea-



Aurten 3 urte beteko dituztenak Igo aldiz hasi dira eskolan. Ezkerretik eskubira: Iñigo Imaz Arruabarrena, Alex Anduaga Mariano, Jokin Sarasola Linares, Iker Zabala Telleria, Gorka Telleria Izuskiza, Ainitze Imaz Ugarte, Beñat Lardizabal Iturralde eta Gorka Telleria Etxaleku.

ren proiektuari egin beharreko alegazio epea hilabete atzeratzea eskatuko dio Udalak Diputazioari. Hauek azaroaren 3ra arte egin ahal izango dira. Proiektua Udaletxean dago edozeinek ikus eta azter dezan.

Ikastaroak

Soinketa: 2 talde arituko dira ekainera arte, asteen 3 egunetan, Baratze pelotalekuan. Arratsaldeko taldea irailean hasi da eta goizekoa urrian hasiko da. Informazioa Udaletxean.

Eskulanak: hauek, Txanbolinpen arituko dira urritik ekainera arte. Bilerarako deia pasako da. Informazioa Udaletxean.

Musika eskola: irailaren 7an hasi ziren beheko eskoletan ekainera arte iraungo duten musika ikastaroak. Asten 2 egunetan Hezkuntza musikala nahiz instrumentuak (trikitixa, akordeoia, gitarra eta saxofoia) ikasteko aukera dago. Iaz 43 ikasle ibili ziren eta aurtengorako, 40 ikasle daude matrikulatuta, horietatik 3 helduak. Informazio gehiago Tobera Musika Eskolan (801570), astelehen eta ostegunetan 12:30etatik 15:00etara. Dantza ikastaroa ere sortu nahi da eta urrian matrikula epea irekiko da.

Txistua: urriaren 1ean, 19:00etan Kultur Etxean dira elkartzekoak Joxe Mari Telleriarekin ekainera arte txistu eta solfeoko klaseetara joango di-

renak. Klaseak, asteen 3 egunetan izango dira eta 6 urtetik aurrera edozein has daiteke. Iaz, 50 ikasle aritu ziren 4 taldetan.

Ingelesa: aurreko urteetan bezala, herrian bertan sortu nahi dira ingeleseko ikastaroak. Horretarako irailaren 26an, 17:00etan bilera egingo da Zopajale Elkartean.

Ehiz postuak

Irailaren 14an Segurako Udaletxean egindako subastan, 17.125.000 pezeta ordaindu zituzten ehiztariek partzoneriko ehiz postuengatik. 10 ordainduenak ondorengoak: Agiñaran 5: 944.444 pezeta, Larrebil 18: 912.000, Apota 9: 877.900, Apota 11: 781.129, Larrebil 6: 780.000, Iturgain 6: 726.000, Agiñaran 1: 705.507, Apota 13: 685.500, Agiñaran 3: 656.000 eta Larrebil 4: 651.506.

Subastatik kanpo geldituta Segurako Udalari tokatu zitzaizkion ehiz postuak: Apota 14, Larrebil 5, 13 eta 19, Ulzama 4, Iturgain 5 eta 7, Agiñaran 0 eta 2, Arkain 1, Peazulueta 2, Portugaina 2 eta Santispiritu 1. Irailaren 15ean egin zen postu hauen zozketa ehiztari herritarren artean. Guztien artean, 348.056 pezeta ordaindu behariko dituzte.

Pelota

Klubaren arteko Gipuzkoako txapelketan, irailaren 12an, Egoitz

Berasategik eta Jon Ander Hombrek 22-14 galdu zuten Carrete eta De Santos intxaurrondotarren aurka. Txapelketan Iñaki Artolak, Ibon Etxeberriak eta Xabier Etxeberriak ere parte hartuko dute. Hurrengo partidua Amezketan jokatu dute bertakoen aurka asteburu honetan.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Jubenilak: Segura 1-2 Euskalduna. Errejonialak: Aloña Mendi 1-1 Segura.

Asteburuan etxean: Errejonialak: Segura-Lasarte, zapatuan, 16:30etan. Kadeteak: Aizkorri-Tolosa, jaien, 16:00etan.

Labur labur

● Uztailen itxi zuten **Madaleña** taberna-jatetxea. Irailaren 7an izan zen **Gorka Izagirrek** zuzenduko duen Mutiloako Ostatuaren irekiera.

● Irailaren 7ko **uso tiraketan** 124 lagunek parte hartu zuten. 3 uso bota zituztenak 16 izan ziren, horien artean Joxe Migel Aldanondo (1go herritarra) eta Xabier Alustiza. Txoritegi Elkarteko artean lehena Asier Ormazabal izan zen.

● Irailaren 14an, **Xepeño Agirrek** irabazi zuen Santa Kutz festetako bola saioa Legazpiko Danantzako bolatokia. 6 botalditan 36 birla jo zituen.

● Irailaren 19tik 29ra, **Jesus R. Jauregiren** pintura erakusketa egongo da ikusgai Groseko Iparragirre, 18-behean, "Art, Co" galerian. 30 collage aurkeztuko ditu. Gaia: "Bihotza hazten deanean".

● Irailaren 21ean, **Ordozgoitarraren** bazkaria izango da. 13:00etan meza izango dute San Sebastianen eta ondoren bazkaria Olaberrian.

Joseba Telleria

OLABERRIA

Ikasturtea hasi da lurre ikastetxean



Dagoeneko herriko txikienek hasi dute ikasturtea, irailaren 8an hain zuzen ere. Aurtengo ikasturtean 3 haur gehiago daude, 9 guztira. Haur hauen irakaslea Mari Karmen Alonso da eta hiru urte daramatza ikastetxe honetan. Maialen Mujika irakaslea, aldiz, 4 urtetik goragoko haurrei ingelesa irakasten die.

Mari Karmenek esan digunez, "2 urtetik 6 urte bitarteko haurrak daude eta euskaraz irakasten diegu, eskola eguna aldiz goizeko 9.00etatik 1.00a bitartean luzatzen da". Baina ikasle gutxi izateak ere abantailak baditu, "irakasle eta ikasle

arteko erlazioa hurbila lortzen da eta horrezaz gain handiak txikiari gauza ezberdinak erakusten dizkio", diote bi irakasleek.

Herritarrek Ordizian

Aurtengo Ordiziako Euskal Jaien barnean irailaren 10ean azoka berezia ospatu zen eta bertan herriko base-ritarrak izan ziren beraien produktuak eta animaliak erakusgai jarriaz:

- **Oilo eta oilarrak:** Lurre auzoko Maria Dolores Insaustik hiru lehenengo sari lortu zituen Ikaztegietako Zubiaurre baserrian hazitako oilo eta oilarrekin. Hiru oilo mota izan zituen era-

kusgai: leposoilak, marra-dunak eta lepagorriak, azken bi oilo mota horiekin lortu zituelarik hiru lehenengo sariak. Balda baserriko Gregorio Mujikak ere izan zituen erakusgai bere oilo eta oilarrak.

- **Behiak:** Bildotsaga baserriko Alberto Irastorzak 4 behi friso jarri zituen erakusgai. Esnetarako diren behi hauekin ez zen txapelketarik egin, erakusketa baizik.

- **Gazta:** Aizpea bordako Mikel Etxezarreta eta Elixabete Garmendia artzainek eginiko gaztak Ordiziako Txapelketan parte hartu zuten baina ez zuten saririk lortu. Hala ere, Legazpin jokatutako Gipuzkoako txapelketan 10. postua lortu zuten, eta ondorioz Euskal Herriko gazta txapelketan izango dira.

- **Piperminak:** Bengoetxe-haundi baserriko Joxe Angel Munduatek Munduatearren lurretan landutako piperminak edo gindillak jarri zituen erakusgai. Aipatzekoa da pipermin hauek Label kalitatea dutela eta baita

ere herriko denominazioa.

- **Onddoak:** Maria Dolores Insaustiren semea den Iker Ruizek onddoak jarri zituen erakusgai.

Jubilatuen eguna

Irailaren 28an jubilatuen eguna ospatuko dute eta urriaren 8an Asturiaserako bidaia antolatu da. Jubilatuen egunean 13.00etan meza izango da eta ondoren, 14.00etan bazkaria Arrieta jatetxean. 65 urte baino gehiago dituztenak eta ez-konkideak bazkarira gonbidatuta daude.

Bestalde urriaren 8an Asturiasera joateko 3 eguneko bidaia antolatu du Guraso Elkarteak Udalaren laguntzarekin. Bidaia hau egiteko 65 urtetik goragoko herritarrek izango dute preferentzia, autobus bakarra izango baita bidaia egiteko. Prezioei dagokienez, 65 urte baino gehiago dituztenek 7.000 pezeta ordaindu beharko dituzte eta besteek 8.000 pezetan. Urriaren 6rte duzue izena emateko aukera Udaletxean.

Nagore Goiburu



ARANDIA
Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
☎ 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Maindreak - Mahai oilalak
Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Zeberio
☎ 88 00 84

J. M. Barandiaran Plaza
ORDIZIA



☎ 88 55 00 ORDIZIA

ARRIETA

JATETXEA

☎ 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

GOIERRITARRA



88 96 12

ZEGAMA

Gregorio Aramendi keramika ikastaroa



Aurtengo ikastaroai hasiera emanez, Udalak eskularen munduan aukera berriak eman nahi dituenek, Pott keramika elkartearekin harremanetan jarri da eta Gregorio Aramendi, azken ontzigilearen omenez keramika ikastaro hau antolatzen hasi da. Irailaren 29rarte izango da izena emateko aukera Udaletxean, bertan matrikula-orria bete.

nahi dutenek baldintza bakarra bete beharko dute, Goierrikoa izatea.

EPA-ko ikasturte berria

Ikasketa hauen bidez zenbait jendek eskola-graduatuak lortu duela ikusirik, Udala jarraipena emateko prest dago. Ondorioz, aurtengo eskola-graduatuak ateratzen hasi nahi dutenek matrikula zabalik dute.

Honetaz gain eskola-graduatuak lortu dutenek edo aurrez zutenek, modulo ezberdinen aukera dute, hala nola, matematika arloan, lenguaia arloan, ingelera hizkuntza nahiz tailer ezberdinak izango dira.

Matrikula epea irailaren 26ra bitartean izango da, bigunak barne eta Udaletxean matrikula-orria bete beharko da.

IV. Kantu festa

Euskaldunok, gure usadioak mantendu nahian, zenbaitetan mahainguruan sabelak bete eta gero kantatu eta kontu festa giroan egotea gustoko dugu. Horretarako, aurtengo ere, Orkatz abesbatzak IV. Kantu festa antolatu du irailaren 27rako. Festa honetan parte hartu nahi dute-

nek Orkatzeko edozein partaiderekin harremanetan jarri daitezela.

Egitaraua:

16:30etan: Txarape auzoan elkartuko dira trikitixa nahiz kantu bizitz festari hasiera emanaz. Bertatik kalejira alaietan herriko enparantzara abiatuko dira.

17:15etan: Denontzat talde jokoak.

18:30etan: Buruhandia eta erraldoiak, trikitilarien.

19:30etan: Txokolate jana herriko plazan.

20:30etan: Kantu poteoa.

21:30etan: Kantu afaria herriko Kiroldegian.

Eduarne Albizu

LEGORRETA

Insausti Harria batzordeko lehendakariari

Insausti Harria kirol probako kolaboratzaileei esker, oneko oharra kaleratu ez dutelako El Diario Vasco-ko sekzio lokala kritikatzeko duen GOIERRITARRA aldizkarian azalduko komentarioa dela eta, zehaztu beharra diot batzorde horretako lehendakariari, Joxe Lorentxo Soroiz, ohar hori hirutan bidali nuela DVra; baina argitaratzearen, zer edo zer ez aldatzearen edota kronika guztia kanpoan gela-

ditzearen erabakia DVko Edizioetako arduradunetik dagokiela. Sentitzen dut nire informazioa ez argitaratu izana gai honetan eduki duzuen interesagatik. Dena den, kirol probaren antolakuntzaz inolako abisurik jaso ez nuenean, —horrek izugarri harritu ninduen— eta are gehiago, batzordearen batzordeburua zu zinela jakiterakoan.

Nirekin kontaktuan jarri zen antolakuntzaren kideari

jakinarazi nion, ez zela —nahiz eta gu interesaturik egon— ohar bat argitaratzeko ez zen lehenengo aldia eta minutu batzuk beranduago bere etxera bi alditan hurbildu nintzela berri eman banion ere, ez du inongo dei pertsonalik jaso.

Nire ustez, badago kolaborazio hori eskertzeko hainbat era desberdin eta El Diario Vascok, Insausti Harria eskaini zuen laguntza-rengatik, tratatu egokiago bat

merezi zuela iruditzen zait eta ez bakarrik izan duen kritika.

Sekzio hau, ahalik eta informazio anitzagoa emateko helburuarekin, instituzio, entitate eta herritarrekin elkarlanean egon da eta egongo da beti.


*Bixente Esnal Elizegi
(Legorretako DVko
korresponstala)*

IBAI-ONDO



**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
880543 BEASAIN



KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
88 51 68
ORMAIZTEGI

Hego Euskal Herriko lehen Kart pista Olaberrian

Olaberrian, Pryca hipermerkatu-aren goikaldean egin dute Hego Euskal herriko lehen kart zirkuitua. 1.100 metro inguruko luzera duen zirkuitu honen bultzatzaileak Manuel Iturrioz, Juan Negeruela, Iñaki Olano eta Andres Vilariño auto gidari famatua dira, Manuelen seme den Xabierrekin batera.

Xabier Iturrioz, Iñaki Olano eta Juan Negeruela beti ibili izan dira kartetan, lehenengo biak afizio hutsez, eta hirugarrena berriz laisterketetan, hainbat aldiz Euskadiko txapeldun izan zen. Hauek kartean ibiltzeko iparraldera joan behar izaten zuten, hegoaldean ez baitzegoen pistarik. Manuel Iturriozek Olaberrian terrenoa zituen, ehun mila metrotik gora, zabortezi bezala erabiltzen zituen eta bukatu diren garaian beste irtenbide bat ematea pentsatu zuen. Gazteek kart pista egin nahi zuten eta Manuel beti izan zituen zalan-tzak. Proiektu honetan garrantzitsua izan zen Andres Vilariño azaltzea, "berak eman zigun behar genuen bultzada. Hau ez da jolas egiteko bakarrik, asko kostatzen baita. Honi bere etekina atera behar zaio, eta berak motorraren mundu hau ondo ezagutzen du eta badaki zer egin behar den", dio Manuelek.

Kartak alokatu egingo dira eta karta duenak ere denbora bat izango du go-



"Goierri berran ere ikeratzeko moduko afizioa dago".

zatzeko, orduka ordainduaz. Karta etxean edukitzeko leku egokirik ez duenak ere urte guztian gorde eta kaso egingo zaion tokia izango dute alokailuaren truke. Euskal Herri guztiari eta kanpora begira egingo dago. Manuel harrituta azaltzen da, "jende asko ari da deitu eta galdetzen, bertara ikustera ere asko gerturatzen dira. Nik ez nuen sinisten horrelako zaletasunik zegoenik".

Iñaki Olano mekanika arduraduna da: "2 motako kartak daude 2 eta 4 denboratakoak lehenengoak 100 cm^3 -koak eta bigarrenak 200eko enbragedunak. Hauek alokatzeko dira, aparte partikularrak, lehiaketakoak ere badaude". Umeentzakoak ere ekarri behar dituzte eta hauentzat pistaren bazter bat egokitu.

Kartetan ibiltzeko ez dago inongo baldintzarik, gidaria pedaletara eta bolanteara iristen bada nahikoa da, berdin da adina edo gidatzeko karnetik duen, hori bai, kaskoarekin ibili behar da. "Inongo arriskurik ez dago, kart bat bolkatzea oso zaila da, bata bestearekin kateatu ezean ez da gertatzen. Gu urte askoan ibili gara eta ez

zaigu inoiz ezer gertatu. Bestela 'tronpoa' egin eta pistatik ateratzea beste arriskurik ez dago", adierazi du Iñakik, beldurtiagoak animatu nahian.

Denborapasa eta lehiaketa

Jatetxe edo merenderoa ere badute eta jendea arratsalde pasa etortzeko leku egokia da. Kanpoan ere mahai batzuk jarriko dituzte bakoitza bere janariarekin joateko.

Lehiaketa mailan federazioaren esku dago zein proba izango dituzten. "Lehenengo Euskadiko txapelketa ekarri nahi dugu, eta nahiko bideratuta dago. Espainiakoa, berriz, aurretik izendatuta egoten direnez itxaron egin beharko dugu". Eskuter eta minimoto karreraren bat ere egingo da. Auto kontzesionarioak ere ari dira interesatzen, auto berri baten aurkezpena dutenean bertan egin ahal izateko. Hurrei Bideko hezkuntza emateko asmoa ere bada eta horretako Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan daude. "Motor mundu zabal horretan atzeratuta geunden eta zerbitzua emateko asmoa du Olaberria Karting-ek.

Goierri ere bizitza eman-gio dio. Goierri berran ere ikeratzeko moduko afizioa dago, Azpeitia eta Altsasu aldean ere bai. Beti dator norbait kart bat duela esatera edo kartean ibiltzera ez dakit nora joaten dela esanez, jendea irekitzeko irrikitzen dago", diote bultzatzaileek.

Inaugurazio egunean, prentsari begira egingo da, lasterketaren bat egingo da, eta barketekin "hots piska bat atera" eta erakusketa bat egiteko asmoa da.

Hainbat ideia berri

Ikustera datorrenarenarentzat pistaren behekaldean aparkaleku zabal bat dago, eta goikaldean begira egoteko lekua, denborarekin eta behararen arabera ikusiko dute tribunarik egin behar den edo zer egin behar den. Arrakasta handia badu ondoan hotel bat egiteko asmoa ere badute. Orain, berriz, jendea igerileku baten eske dute. Estatuko kart pista gehien, 20 inguru, dagoen Kataluniako zirkuitoekin konparatuaz arazoa eguraldia izan liteke. "Eurria egin edo ez lasterketak berdin egiten dira, baina, jendea ibiltzeko garaian ez da berdina".


Diseinua beraiek egin dute Manuelen enpresako aparejadorearekin batera. "Hemen zeuden metro karratuetan 1.000 metro pasako zirkuitua egin behar zen, ez zegoen milagrorik egiterik", diote, baina Estatuko zirkuitorik onenetakoa egin dute. Orain, aparkalekutik tabernara zubi bat egiten hasiko dira, zirkuitu guztiari buelta eman beharrean, erditik mozteko.

JEXUX MARI MENDIZABALEK 'KALEZULO' NOBELA KALERATU DU: Drogaren zuloan murgildurik

Nobela errealista da, benetan gertatutakoak bildu ditu Jexux Mari Mendizabal 'Bizargorri' ormaiztegiarrak. Drogaren munduan sartu da, kalezuloan. Kale eta droga giroa islatu nahi izan ditu. Gazteentzako nobela da 'Kalezulo'.

'Bizargorri' ren seigarren liburua da 'Kalezulo'. 1993an argitaratu zuen 'Leizezulo' liburuaren jarraipena da 'Kalezulo'. Azken aldian zuloetan sartuta dabil. "Elkarren segidakoak dira. Protagonistak berberak dira, batean eta besteetan. Bi egin ditut eta asmoa hiru edo lau egitekoa da. Hasieran protagonistak lau ziren, bat zen nagusia; bigarrenean bigarren bat hartu dut, Asier, beste kolega berri batzuekin. Orain beste bi gelditzen zaizkit: Jon Potto eta Amaia", argitu digu 'Bizargorri' k.

Asier droga munduan sartuta dabilen gaztea da. Droga lortzeko egin beharrekoak, mundu horretan sartzeko zergatiak, arazok... kontatzen ditu. Kontakizunak ere, erreala dira. Euskara irakaslea da Jexux-mari Irungo Txingudi ikastolan. Bere ikasle izandako eta droga munduan sartuta ibili ziren 3 gazteren ordu txikietak aitorpen bilduma da. "Aspaldiko urtetan nire eskutatik pasatako ikasle batzuk, 17-18 urtera iristean, hotsa etorri zitzaidan droga munduan sartuak zi-



"Nobelak ez du moralizantea izan nahi, bakoitzak bere ondorioak atera ditzala".

rela. Oso lagunak nituen bai ikasleak, bai gurasoak ere. Ikasleekin hitzorduak jarri eta hizketan hasi nintzen. Nola funtzionatzen zuten, zein zen beraien egoera... Konfidantza handiarekin halako aitorpen sakinak egin zizkidaten. Lapurretak, kotxe lapurretak, pistolak, droga tratuak, gaueko trapitxeo kontuak...". Kontakizun soil horiek baino urrutirago joan nahi izan du, ordea, Jexuxmarik. "Hortan dabilen gazte batek zein kezka dituen; zergatik sartzen den hortan eta azken batean zein burubide darabizkien; larriuneak nola pasatzen dituen...".

Ondorioak atera

Liburua batez ere gazteei begira egina dago. "Giroa bera ere horrelakoa da, 16-17 urteko protagonistak dira, Irunen bertan kokatua, hiri handi bateko asteburu normal bateko kale giroa. Gazteentzat kontatua dago, ez du moralizantea izan nahi, ez du ezertxo ere erakutsi nahi, egoera eman eta

bakoitzak bere ondorioak atera ditzala".

Harritu duen gertaerarik edo bitxikeriarik ere jaso du Jexuxmarik. "Kotxeko kristalak puskatzeko sistemak, droga ipurtzulotik nola pasatzen duten... egoera fuerteak. Kotxeko kristalak bujiak inguruan duen zati txuri horrekin puskatzen dituzte. Beraien jokaera batzuk harritu naute: autopistan, besterik gabe, kotxea lapurtu, entretenitzeko zein modu dituzten, autopistara atera eta pistolarekin mehatxatu... Gogorak dira egoerak baina gertatzen dira".

Hizkuntza zaila

Liburua idaztean arazorik handiena hizkuntzarekin izan du. "Ahalegin handiena egin nahi izan zuen jerga hori haria izan zedila nire kontakizun hortan. Jaso ere egin nituen bizpahiru orritan jergako hitzak eta esaldiak, kolegei deitzeko. Euskaraz ordea, ez nuen ezer ere jaso. Nire arazoa horixe zen, jerga horren agerpena sarri egin nahi izan nuen, hasiera batean itzulpenak

egiten, erabat faltsua gertatzen zen. Azkenean hitz sueltoak bakarrik sartu nituen erreferentzia modura. Bakarren bati euskara jaso-egia gerta lekiok horrelako historia bat kontatzeko Irungo kalean, gazte kolega batzuen artean. Badakit Goierri euskara gehiago erabiliko dutela, baina Irunen ez da horrelakorik gertatzen eta ezin jaso izan dut".

Duela 3 urte jasotako informazioarekin tajutu du liburua Jexuxmarik. Gauzak honela, ordutik hona gaueko martxa asko aldatu dela azpimarratu nahi izan du. "Diseinuzko drogak sartu dira, garai hartan ia ez zegoen".

Oraingo gazteak okerragoak?

Galdera horixe egin diogu Jexuxmariri. "Modu diferentera entretenitzen dira. Musika aldatzen den bezala jokaera ere aldatu egiten da. Nik askotan esaten dut, gure garaian askoz ere gehiago, fuerteago edaten zela. Orain kalimotxo, zerbeza edo litronarekin ibiliko dira, sekulako hotsak entzuten dira prentsan... Nire garaiko Goierri 14-16 urterekin jende gehiena lanean hasita egoten zen, eta beren asteburuko soldatatxoarekin edan askoz ere fuerteago egiten zuten, alkohol fuerteagoa edaten zen. Gaur aukera gehiago dago. Diskutigarria izan daiteke hori. Baina arrisku handiagoa dauka droga sartzeak, osasunean izan ditzakeen kalteagatik".



1971 eta 72an jaiotako legorretarrak

Garai bateko Legorretako "Eskola nazionaletan" ibilitakoak dira hauek, 1971-72. urteetan jaiotakoak. Inma Colomok utzi digu argazkia.

Lehenengo ilaran: Iñigo Zunzunegi, Inma Colomo, Guadalupe Goikoetxea, Elvi Fernandez, Escoli Sanchez, Marcelino Rostro, Rebeca Ezeizabarrena, Mari Jose Lasa, Jon Iturrioz, Jose Migel Garmendia eta Esther Mujika.

Erdiko ilaran: Yolanda Ruiz, Angel Espinosa, Monica Lasa, Mari Karmen Fernandez, Sara (andereñoa), Karmele Arevalo, Josune Arevalo, Rocio Fernandez eta Cati Rojas.

Beheko ilaran: Antonio Manuel Indias, Mari Jose Pedreira, Mila Blanco, Patxi Garmendia, Pili Docarmo, Begoña, Pedro Blanco, Pedro Bolaños.

GOIERRIKO GOIZTIRI

EUSKALTEGIAK

97-98rako MATRIKULA ZABALIK

EUSKARA GALDUZ GERO, AKABO EUSKAL HERRIA!

- ✓ **ORDUTEGI MALGUAK:** Goiz, eguerdi, arratsalde zein gauekoak.
- ✓ **ERRITMO EZBERDINAK:** 2, 3, 4 edo 5 ordukoak.
- ✓ **ZURETZAT EGOKITUTAKO METODOLOGIA:** Kultur sorkuntzan oinarritua. Eguneroko komunikazio egoeretan jartzen dira ikasleak, komunikazio arrakastatsua lor dezaten tresnak jarritz.
- ✓ **BEHAR BEREZIEI ERANTZUTEKO PREST ERE BAGAUDE:** Euskaldunzahr bazara, baina alfabetatu beharra baduzu, hizkuntz eskakizunik bete behar baduzu, EGA, hobekuntza eta abar.

ETA HONETAZ GAIN KLASETIK KANPOKO EKINTZAK:
Txangoak, bisitaldi kulturalak, asteburuko irteerak...

ORDIZIA: SANTA ANA IKASTETXEA ☎ 88 91 74

BEASAIN: KALE NAGUSIA 5-3. ☎ 88 93 40

LAZKAO: ELOSEGI KALEA 16-2. (ANSOATEGI) ☎ 88 91 74

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.
Euskadiko Kutzak matrikula epeka ordaintzeko aukera eskaintzen du.

Irailaren
24a
arte

Guztian Nagusi

2112 CONTINENTAL TVC

- 21 Hazbete • 99 Programa
- Eurokonektorea • Urrutiko agintea
- Funtzioak pantailan • Teletestua

29.900

URTEBETEKO BERMEA



CONTINENTAL

JET DRIVE

• CHASE - ON SCREEN PROGRAMMING - INDEX SEARCH •

SAMSUNG

VHS VIDEO CASSETTE

PRYCA

SAMSUNG 640 XK BIDEOA
• 4 Buru • 50 Programa • SP/LP
• Eurokonektorea • Urrutiko agintea

34.900

URTEBETEKO BERMEA

**GOIERRI
MERKATARITZA ZENTROAK**